




## Jaiak berriro Okendo plazan




Oso ondo pasa  
San Pedro jaietan!



ASEGURUAK  
**Ges**

Kalitatezko zerbitzua da  
gure lanaren arrazoa

- Etxeko aseguruak
- Kotxeak
- Dendak
- Istripuak
- Erretiroak
- Enpresak
- Bizitza-aseguruak...



**USURBILGO  
LANBIDE  
ESKOLA**

**IEFPS USURBIL GLHBI**



**Goi-mailako  
Erdi-mailako  
HEZIKETA  
ZIKLOAK**

**MATRIKULA:  
Uztailaren 4tik 8ra**

**Energia eta ura**



e-mail: [eskola@lhusurbil.com](mailto:eskola@lhusurbil.com)

**Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600**



**Jai zoriontsuak  
opa dizkizuegu !**



**Okela**

**HARATEGIA**



**Hipodromo etorbidea 8 • Tel.: 943 361885**

**Lasarte-Oria**



**Kale Nagusia 41 • Tel.: 943 363912**

**Lasarte-Oria**



# Bertso berriak

## Andoni Otamendik jarriak



1

Ate joka datoz festak  
utzi lanak, minak, kezkek  
kaleak jendez bihur ditzagun  
uholde, erreskak.  
Sar ditzagun ordu estrak  
ahaztu ditzagun xextrak  
aiton-amonak, haurrak, gazteak  
mutilak ta neskek.

2

San Pedrotan ze aldarte!  
hasi ta bukatu arte  
Aurtengo festak emozioa  
soberan dakarte  
hartu ezazue parte  
ez geratzeko aparte  
Lasarte festa bihur dezagun  
ta festa Lasarte.

3

Txosna, taberna ta benta  
Sorgin jaiena: tormenta  
ekitaldiak jarri dituzte  
bertan han-hemenka  
buka dezagun errenka  
jolasa baita errenta  
debaldekoa bihurtu dute  
festaren salmenta.

4

Sorgin jaiak, sorgin jaiak  
umilak bezain alaiak  
bizirik daude ilusioak,  
ametsak ta nahiak.  
Falta zaizkigun anaiak  
indarrez daude epaiak...  
ea ba noizbait aldatzen diren  
betiko garaiak.

5

Udaletxeko peskisan  
obra erraldioen gisan  
kanpoan duen ditzira behar  
du barruan izan  
badegu nahiko zeresan  
hitz egin, mintzatu, esan...  
Izan dedila herriak berak  
parte hartu dezan.

6

Okendoko petrilarri  
desagertua, hilari  
han pasa diren hainbeste kontu  
ta gauza pilari  
hasi natzaio kantari:  
tralara eta tralari.  
Iraganaren ilusioa  
beti ameslari.

7

Ahal danik eta garbinak  
egin dituzte jardinak  
bertan bizitza egon ez dedin  
nahi duten berdinak.  
Jarri ditzagun kanpinak  
ez geralako panpinak  
erakusteko badauzkagula  
hortzak ta haginak.

8

Udala zen deserria  
aldaketa igerria  
baina negua bilakatua  
da udaberria  
bizirik dago herria!  
Mugi dezagun gerria!  
Oso zaharra ez izan arren  
sortzeko berria.

**hurrengo  
zenbakia**

**txintxarri**

**Uztailaren 5ean**  
2011ko San Pedro festetako argazkiak

Uztailaren 5era arte ez da TXINTXARRI-rik izango; ale berezi horretan San Pedro jaietako ekitaldietako argazkiak argitaratuko ditugu. Jaietan atera dituzuen argazkiak TXINTXARRI-n argitaratzea nahi baduzue bidali txintxarri@txintxarri.info helbidera astelehen goizerako.

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala**  
**Euskarako Batzordea**



**GFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A.  
Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.





Alboka Abesbatza mistoaren aurkezpena San Pedro elizan 1988eko ekainaren 24an egin zen. Garai horretan 100 bat ahots inguruk osatzen zuten gogoz eta ilusioz osatutako abesbatza. Arg. Daniel Adrianen senideak

# Musika zale handia izan zen Daniel Adrian

Alboka abesbatzako zuzendaria izan zen musikaria omenduko du aurten Udalak Sanpedrotan

Lasarte-Oriaren bultzatzen diren hainbat kultur eta kirol ekimenen artean aukeratzen du Udalak urtero San Pedrotan omentzeko pertsona eta aurten Daniel Adrian De Con, Alboka Abesbatza mistoko lehenengo zuzendaria hautatu dute. Herriaren alde lan egiteagatik eta gehienbat kultura korala bultzatzeagatik aukeratu dute aurten omendua izateko. Musika zaletasunaz gain, Danielek beste pasio ugari izan zituen bere bizitzan eta ez zen Alboka abesbatza izan bultzatu zuen proiektu bakarra.

Daniel Adrian donostiarra zen jaiotzez, baina 1974an Lasarte-Oriara etorri zen bizitzera bere emazte Teresa Lopezekin. Eta erabat murgildu zen herriko kultur munduan. Musika izan zen bere bizitza-

ren ardatz nagusia, baina ez bakarra, kezka handiko gizona izan zen. Bere bizitza eta ibilbidea ezagutzeko aukera interesgarria eskaintzen digu aurtengo sanpedrotako omen-  
dua izateak.

Geldirik egoten ez zen eta kezka asko zituen gizona izan zen Daniel Adrian de Con jauna. ALBOKA abesbatza koru misto bihurtzeko egin zuen ahaleginarengatik eta abesbatza honi eman zion izaeragatik ezaguna izan da herrian. Baina honetaz gain ekarpen ugari egin zituen.

Lasarte-Oriako aurreko Udal gobernuak erabaki zuen aurten omenduko duen pertsona Daniel Adrian izango dela eta beraz Omenaldi postumoa jasoko du, baina merezitakoa. "Giza balore handiko gizona izan genuen eta merezitako omenaldia dela uste dut" aipatu digu Jesus Mari Egizabal bere laguna izandakoak.

Bere bizitza askatasun eta sinpletasunean oinarritu zuen, bere giza balore eta familiarrekin bat eginez.

Grina eta jakin-min handiko gizona izan zen "Danielen adiskidetasuna, formakuntza kulturala, konpromisoa eta gizatasuna aipatzekoak dira eta guzti honek pertsona garrantzitsu eta estimatu bihurtu zuen" gaineratu digu Egizabalek.

## Musika eta Biologia

Txiki txikitatit musika munduan murgildu zen Daniel.

Eduardo Hernandez Asiain, XX mendeko biolinista ezagunaren ikasle izan zen. 17 urterekin biolin karrera amaitu zuen.

Donostiako Kamera Orkestrako kide izan zen 1964-65 urte bitartean. Esperientzia polita izan zuen, baina bere ikasketak sakondu nahian Zaragozara abiatu zen Kimika Zientziak ikastera.

Bertan zegoela, unibertsitateko LAGUN ARTEA abesbatza zuzendu zuen.

Bi karrera bazituen ere, ondoren bere bizitza profesionala bankueteen munduan egin zuen. Baina musikari tarte nabarmena emanek.

## Zaragozatik Lasarte-Oriara

Behin Biologia karrera amaituta, familiarekin Lasarte-Oriara etortzea erabaki zuen Daniel Adrianek.

- Luxuzko autokarrak.
- 22, 28 eta 31 plazako mikrobusak.
- 56 plazako autobusak.
- Literadun autobusak.

Ubilluts auzoa, 55. poligonoa 9-4 • 20140 ANDOAIN  
Tel.: 943 305050 • Faxa: 943 305060  
e-maila: info@autocaresurpa.com  
web orria: www.autocaresurpa.com

**URPA**  
AUTOBUSAK



Beraz Euskal Herrira etorri zen familia hartuta. Aipatu bezala musika garrantzitsua zen berarentzat. Horregatik etorri eta KAZKABARRA herriko taldearen kide bihurtu zen. "Taldea garrantzitsua eta esanguratsua izan zen 80ko hamarkadan" azaldu digu Egizabalek.

Taldeko kide zenean inauterietako abestietan oinarritutako diskoa argitaratu zuten.

Garai horretan ere, hain zuzen 1977an, Felipe Lizarragak zuzentzen zuen ALBOKA, ahots baxuen abesbatzako kide egin zen.

Lizarraga zuzendariak kargua utzi zuenean, Daniel Adrianek hartu zuen bere lekua.

10 urtez egon zen zuzendari eta epe horretan abesbatzak ekitaldi profano eta erlijiosoetan kantatu zuten.

Garai horretan ere, euskarazko hitzetan, Donostiako Gros auzoko Calderero konpartsako kantu tradizionalak grabatu zituzten.

### Ahots baxuen amaiera

Daniel Adrian de Con Alboka abesbatzaren eraldaketaren alde agertu zen, zena baino zerbait gehiago izan zitekeela uste zuen eta horregatik abesbatza misto bat eratzeko proposamena luzatu zien kideei.

Garai horretan ere, euskarazko hitzak esan zizkien ALBOKA kideei: *Aldaketa egiteko apustua izango da, lagunarteko abesbatzari amaiera emanez, talde txiki batek dituen abantailei uko eginez eta talde ezberdin, misto eta handia sortzea*.

Hitz hauekin hasi zen ALBOKA eraldaketa. 1987an bilera ireki batera gonbidatu zituzten herritarrek.

### Koru mistoaren sorrera

Egungo Manuel Lekuona kultur etxea dagoen lekuan zegoen Tedoso zineman jarri zen hitzordua eta jende ugari hurbildu zen bertara proposamena entzuzera.

Musika eta kantu koralararen inguruan interesa zutenak adi entzun zituzten bere hitzak: "Bere proiektua gogo biziz aurkeztu zien bertakoei, ados zegoen planteatzen ari zen

## Musika maitatzen zuen gizona zen Daniel Adrian, baina horretaz gain, inguru-giroa ere babesten saiatu zen

aldaketarekin" aipatu digu Egizabalek.

Eta Danielek aurkeztutako arekin bat etorri zirenez lehenengo entsegurako jarri zuten hitzordua.

Horrela, normaltasuneko ahots baxuen abesbatza misto izatera pasa zen. Izena mantendu nahi izan zuten baina hitz bat gehituz, ALBOKATIK ALBOKA ABESBATZA izatera pasa zen.

Herritarren babesaz gain, abesbatza honek Lasarte-Oriako Udaleko bermea ere jaso du daraman 24 urteko ibilbide honetan.

Abesbatzako kideak herriaren enbaxadore izan dira, eta herrian abesteko eskatu zaizkion ere hor egon dira.

### Danielen papera Albokan

ALBOKA ABESBATZAREN sorkuntzan eginkizun garrantzitsua bete zuen Danielek.

20 urtez gogor borrokatu zuen proiektu honen alde "bere ezagutza musikalak, balioak, esperientziak nahi izan zuten guztien esku jarri zituen" dio Egizabalek "gainera ez zion inori huts egin" gaineratu digu.

Abesbatza eratu eta garatu egin zen berarekin eta egun oraindik irauten du.

### Kantak Gogoratuz

Kantatzeaz gain liburu bat ere idatzi zuen "Kantak Gogoratuz-Recordando Canciones".

Kantak Gogoratuz liburuan estilo ezberdinetako 1.300 abesti inguru jaso zituen Adrianek.

"Bere azken egunetan bukatu zuen idazkia. Horri esker utzitako legatu harrigarria izan da" azaldu digu Egizabalek.

Liburu honen hitzurrearen hasiera gogoratze modukoa dela aipatu digu Egizabalek *Kantuz bizi naiz eta kantuz nahi bizi...* eta baita amaierako hitzak ere *bakoi-tzak kantatu nahi duen abestia*

*aukeratu dezala, horretarako dago liburua eta batez ere, disfrutatu.*

### Musika baino gehiago

Kimika ikasketak burutu bazituen ere, ez zen laborategiko lana bere ogibidea izan. Hala ere, bere erara azterketa sistema propioa sortu zuen.

Natura izan zen bere zale-tasunetako bat. Gaztetik Aranzadi Zientzia Elkartearekin lanean aritu zen. Urte batzuetan espeleologia munduan ibili zen mendira irteerak eginez eta "giro naturalean zegoen bizitza horretan murgiltzen" argitu digu Egizabalek.

Ingurugiroaren babesle sutsua izan zen "Jaizkibelgo itsaslabarrean Pasaiaiko portuak eragingo zituen arazoan inguruan idatziak egin eta eztabaidetan parte hartu zuen" dio Egizabalek.

Gizon ikasia eta horren isla "bere esperientzia eta pentsamenduak ematerako orduan, erabiltzen zituen gaitasun literarioetan ikus daiteke" dio Egizabalek.

### Bankako langilea

KUTXA banketxeko langilea izan zen urte askotan eta bertan "bere giza izaeragatik lasarteoriatarren maitasuna eta errespetua jaso zuen" aipatu digu Egizabalek.

Era berean elkarbizitzarako adibide zela argitu digu. Bere profesionaltasunari esker herritar ugari ahokulari eta lagun bezala zuten eta.

Balore errotuak zituen "postura etikoa behar zuten gertaeren aurrean giza eskubideen alde egiten zuten beti Danielek" Egizabalen hitzetan.

### Herritarren laguna

Lasarteoriatarren adiskidetasuna irabaztea lortu zuen. Bere alaitasuna, gaitasunak eta ekin-tza sozial eta kulturalerako zuen jarrera gorai-patzekoak dira. Elkarbizitzarako eta adiskidetasunerako pertsona erudugarria zela dio Egizabalek.

Izaera alai zuten eta musika edozein ekimenen eraman zuten horietako zen. Bere biolin edo gitarrarekin ikustea ez omen zen arraroa. Edozein afalondo edo bazkalostean jai giroa nagusi zen bera bertan egonez gero.

Musika izan zuen bizitzako arlo garrantzitsuen eta horregatik Egizabalek berriro

ere Kantuz Gogoratuz liburu-ko hitzurrea begiratzeko gonbitea luzatzen digu; nire bizitzako momentu hoberenak kantatzen pasa ditut, gitarrarekin edo a capella, bazkaloste, afaloste edo lagunekin eta familiarrekin pasa ditudan ospakizunetan.

### Bizitzaren paradoxa

Erretiroan bere zaletasunez gozatzeko edukiko zuen denbora librean pentsatzen zuen, baina zoritxarrez bilakaera azkarreko gaixotasun batek bere plan guztiak eten zituen.

"Gizon zuhurra izan zen eta gaixotasunari ausardia zure egin zion" dio Egizabalek. "Zoriz gaitzei aurre egin zien eta bere kantategia bukatzeko aukera izan zuen, bere betiko pasioari, kantu koralar omenaldia eginez" gehitu digu Egizabalek.

Ekimen ugariaren bultzatzailea izan zen Daniel Adrian. 2008ko abenduan pertsona esanguratsua honek utzi egin gintuen, baina herritar ugariaren bihotzetan oraindik bere pertsona bizirik mantentzen da eta bizirik mantenduko da.

Ekarpen ugari egin zizkion Lasarte-Oriako kulturari eta horregatik herriari beti izango dugu gogoan. •



Arg. Daniel Adrianen senideak

1995an Italiako Venetora joan zen Alboka Abesbatza. Kantatzeaz gain Italiako hainbat herri ere ezagutzeko aukera izan zuten.

Ondo igaro herriko jaietan!

**INQUIETUD**

Neurriak 36tik... 60ra

Nagusia 49 • Tel.: 943 370 290 • Lasarte-Oria

San Pedro jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

**Antonio Benito**

Erregistratzeko kutxak eta pantaila taktila dutenak

Aralar plaza 1, behea  
Tel.: 943 371313  
20160 LASARTE-ORIA





**NEUS**  
**ile-apaindegia**

Ondo igaro herriko jaietan!

Pablo Mutiozabal 9-1.C Tel.: 943 361691  
LASARTE-ORIA

**Jai alaiak opa dizkizuegu !**



**Larre**

- EGUNEKO MENUA
- ASTEBURUETAKO MENUA
- TRADIZIOZKO SUKALDARITZA
- ETXeko POSTREAK

Larrekoetxe bidea 10 • LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 361012 / 943 360480

Ondo pasa San Pedroan !

Etorri gure jaki goxoak probatzera



VINA DEL MAR  
TABERNA-KAFETEGIA

Ola kalea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 362768

**aldika** 

**produktu bereziak**

- ahatekinak
- ehizak eta hegaztiak
- bakailao gezatua
- onddoak
- marinatuak
- olagarroa

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu !



**Industrialde 19-20**  
**Tel.: 943 377089**  
**Lasarte-Oria**  
**aldika@euskalnet.net**

Teresa López Revuelta Daniel Adrianen alarguna

# ‘Musikak markatu zuen Daniel Adrianen bizitza’

**D**onostiarra jaiotzez, eta lasarteoriatarra adopzioz. Daniel Adrianek musika zuen bere zaletasunik nagusiena. Pertsonai ezaguna, maitatua eta kultura sustatzaile izan zen. Alboka Abesbatza mistoa bultzatu zuen. Abenduan hiru urte beteko dira gaixotasun batek gure arteetik eraman zuenetik, baina bere memoriak bizirik dirau. Aurten sanpedrotako omendua izango da eta bere bizitzaz gehiago jakiteko Teresa Lopez Revuelta, alargunarekin bildu gara.

**Nola hartu du familiak Daniel Adriani aurten sanpedrotan egingo zaion omenaldia?**  
Hasieran sorpresaz hartu genuen, baina oso kontent gaude eta harrotasunez omen-dukulo delako.

**Alboka Abesbatzan izandako papera garrantzitsua izan zen...**  
Omenaldi bat jaso zuen bere garaian, Kantak Gogoratuz liburuxka publikatu zuenean. Oso polita iruditu zitzaigun, ondo sentitu ginen bere lanak jaso zuen aitortzarengatik. Oraingoan ere emozioz hartzen dugu, bere pertsona berriro gogoratuko da. Ilusio handia egin digu, Danieletaz harro gaude.

**Nola gogoratzen duzu Alboka Abesbatzaren sorkuntza?**  
Zorizko gauza askoren pilaketa izan zen. Ahots baxuen Alboka sortu zenean Felipe Lizarraga zegoen zuzendari. Lan lekualdaketa baten ondorioz, Daniel geratu zen abesbatzaren arduradun.

Lagun talde bat zen, musika zaletuak eta elkarteetan afalosteetan kantatzen zuten horietakoak. Afarietara emakumeekin joaten ziren, hauek ere kantatzen zuten. Orduan galdera batek eragin zien; elkarrean kantatzerik bazuten zergatik ez abesbatzako partaide izan.

Afari batean proposatu zen Alboka Abesbatza misto bezala eratzea. Teodoso eraikinean bilera ireki baterako deialdia egin zen. Gogoan dut Danielek nola paperez bete zuen herria.

**Harrera ona izan al zuen abesbatza mistoaren ideiak?**  
Jende ugari bildu zen deialdira eta Alboka Abesbatzan hasieran ehun ahots baino gehiagok parte hartu zuten. Lasarte-Oriaren tamainako herriarentzako kide ugari, arrakasta izan zuen ekimenak.

Hortik aurrera lan egiteko momentua iritsi zen. Hasi ziren askok musikaz jakintza gutxi zeukaten. Lan gogorra egin behar izan zen musika munduan barneratzeko. Baina lan honek fruituak eman zituen, eta nik uste abesbatza maila ona izatera iritsi zela.

**Abesbatza aurrera ateratzeko indarra jarri al zuen Danielek?**  
Ahots ezberdinak sailkatzea eta gero guztiei musika kontuak erakutsiko zizkieten pertsonak bilatzea bere ardura zen. Gogor borrokatu zuten hasiera horietan eta ondoren ere.

Behar bat zegoen abesbatza mistoa ateratzeko eta berrir egokitu zitzaion hori aurrera ateratzeko.

Kezkatia, beti gauzak egitearen alde zegoen eta ideia ondo hartu zen. Gainera Udalen babesa eduki zuen proiektuak, lokala ere utzi zieten. Proiektuak herritarren bermea eduki zuen, herriarentzako ona zelako. Alboka abesbatza lehiaketetara aurkeztu zen eta horri esker, Lasarte-Oriaren izena leku askotara zabaldu zuten.

**Garai gogorak izango ziren.**  
Abesbatza mistoa sortu behar zen, formakuntza eman, baina gustura egin zuen.

Denborarekin, 1996an hain zuzen ere, Kristina Perez Abreuk hartu zuen lekukoa. Baina hor jarraitu zuen hilabete batzuetan, kantatzen bakarrik.

Berarentzat Alboka seme bat zen. Zerbait sortzen duzunean barnean daramazu. Umea heldu eta urruntzen den arren, zure semea da eta maitasun berezia diozu.

**Noiz hasi zitzaion musikarekiko grina?**  
Biolin karrera ikasi zuen gazte aroan. Musika oso errotuta zegoen beregan.

Karrera amaituta Zaragozara jo zuen kimika ikastera eta han, musika behar horren ondorioz, kaldereroen lagunarteko abesbatza baten zuzendari bihurtu zen.

Musika afizioa oso txikitatik dator, jole ona zen, eta gainera ondo kantatzen zuen. Abesbatzek beti atentzia deitu izan diote eta beti egon da musikarekin lotuta.

**Lasarte-Oriara etorri eta nola jarraitu zuen bere zaletasunarekin?**  
1974an etorri ginen Lasarte-Oriara. Ni Burgosekoa nintzen eta bera Donostiakoa,

baina biak Zaragozatik etorri ginen. Eta hona iristean Zaragozako abesbatza utzirik hemen edozer bilatu behar izan zuen bere musika behar hori asetzeko.

Hainbat gauzetan sartu zen. Kamera Orkestran egon zen eta Bizente Beltranen Kazkabarra taldean. Beltranekin bi disko argitaratu zituen.

Honetaz gain Donostiako inauteriekin, Eskola elkartearekin... harreman oso ona eduki zuen. Ekimen horietan murgilduta ibili zen garai batean.

**Eta Alboka noiz sartzen da bere bizitzan?**  
Musika munduan zegoenez ezaguna zen.

Landaberri Ikastolan sortzen ari zen abesbatzaren barruan zeuden gure bi bizilagun, ahots baxuen abesbatza. Eta bertan parte hartzeko proposamena luzatu zioten eta segituan sartu zen proiektuan.

**Musika bere bizitza zen...**  
Musika ikaragarri gogokoa zuen eta horrek asko lagundu zion bere azken urteetan.

Bere gaixotasunak gurgildun ahulki batean utzi zuen eta gogoko zituen jardura batzuk egiteari utzi behar izan zion; onddoak bildu, natura, arrantza... baina musika hor zegoen, bere ihesbidea izan zen.

Denbora aprobetxatu zuen eta "Kantak Gogoratuz" abesti herrikoiak biltzen dituen liburua publikatu zuen. Gainera liburu hori amaitzean omenaldia egin zitzaion kultur etxean, jende asko bildu zen. Babes handia sentitu zuen. Oroitzapen oso onak ditut egun horretakoak.

Danielentzat egun handia izan zen eta emozioz bete zuen jasotako babesak. Ikaragarria izan zen beretzat egun hori eta horrekin geratzen naiz.

**Herriak omendu eta orain Udalak, Daniel handia zen...**  
Jendeak kontuan dauka oraindik Danielen lana eta horrek harrotasunez betetzen nau.

**Nola biziko duzue ekainaren 29ko egun hori?**  
Egun polita izango da, emozioz betetako eguna izango da. Faltan botako dugu.

Baina era berean, berriro ere, Lasarte-Oriako herriak Daniel zenbat maitatzen zuen sentituko eta biziko dugu. Eskerrik asko guztiei. •



Fruituen eta barazkien Donostiako merkatu zentrala



Tel.: 943 376 402  
Faxa: 943 376 172



[www.merkabugati.com](http://www.merkabugati.com)  
Arrapide etorbidea 75  
20160 ZUBIETA - DONOSTIA



**URTEURRENA**  
**1935-2010**



**ERAKUSKETA ETA DENDA**  
Geltoki kalea 21 • LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 363147  
[linterneriaillarreta@yahoo.es](mailto:linterneriaillarreta@yahoo.es)



**ILLARRETA**  
**ITURGINZA**



**Asko disfrutatu San Pedro jaietan !**



**TAILERRA ETA BULEGOA:**  
Ugaldea polig. 8 • Tel.: 943 361752  
USURBIL • [illarreta@yahoo.es](mailto:illarreta@yahoo.es)



- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emailea eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzen eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen kordinazioa
- Arreta pertsonalizatua



# Memoriaren eskultura parke berrian

Gotzon Huegun eskultorearen "Geroaren Memoria" lana jarri dute Udaletxe berriaren atzean Askatasunaren Parkea eta eskultura hau inauguratuko dituzte 29an arratsaldeko 17:30ean Txinan lan bat egingo du bi hilabeteen eta Errusian erakusketa ibiltari batean parte hartuko du

Datorren asteazkenean, San Pedro Egunean, inauguratuko dira arratsaldeko 17:30ean Gotzon Huegun artistaren "Geroaren Memoria" izeneko eskultura eta Udaletxe berriaren atzean eraiki den Askatasunaren Parkea. Espazio berri honen erdi-erdian kokatu dituzte "Geroaren Memoria" lana osatzen duten hiru piezak. Bestalde, Huegun bi hilabeterako Txinara doa uztaila eta abuztuan eskultura klasiko bat egitera eta bere beste lan bat aukeratu dute bi urtetan Errusiako hiri ezberdinetan jarriko den erakusketa ibiltari baterako.



Jen ALTUNA

Udaletxe berriaren atzeko Askatasunaren Parkearen erdi-erdian Markinako marmol beltzez egindako hiru zutabe handi jarri ditu Gotzon Huegun eskultoreak.

Udalak indarkeriaren biktimak omentzeko lan bat eskatu eta Geroaren Memoria izeneko eskultura egin du: "Ez dakit lortu dudan, baina niretzat garrantzitsua da, eta saiatu naiz batzen gaituen pieza bat egiten. Historia tragikoa bizi izan dugu Euskal Herrian, hori onartu beharra dago, beraz hildakoei errespetu osoarekin, errekonozimendu, omenaldi edo aitortza egin eta aurrera segi".

Argizaiola batean oinarritu zen eskultorea lana egiterakoan: "Udalaren enkargua jaso nuenean, argizaiolen irudia etorri zitzaidan elementu sinboliko, magiko-erligioso bezala. Garai batean euskal kulturak edo euskal nortasunak argizaiolak erabiltzen zituen bere hildakoei argia emateko eta beste dimentsiora bidaia hori argiaren bidez nolabait laguntzeko, orduan elementu hori hartu nuen gai nagusi bezala eskultura aurrera ateratzeko".

Hiru piezatak eskultura da, hiru zutabe ezberdin egin ditu eta bakoitzean ormigoiez egindako koloretako laukiak jarri: "Argizaiola handienaren barruan daude edo erakusten dira hildakoak, biktimak, batzuentzat zeruan eta beste batzuentzat beste dimentsio batean, baina gurekin ez daudenak". Esan bezala, kolore ezberdinetako laukiak erabili ditu hor, Huegun-en iritziz "biktimen barruan sentsibilitate ezberdinetako pertsonak daudelako. Kolore ezberdinek hori adierazten dute, ez dela kolektibo homogeneoa".

### Historia iluna-kolore biziak

Gotzon Huegun-en ustez hildakoez gain gizarte osoa izan da indarkeriaren biktima eta eskulturaren beste bi parteeetan hildakoak izan gabe biktimak izan direnak irudikatu ditu, hauek ere kolore ezberdin eta biziak erabiliz, beste bi argizaiola edo harri puskatan.

Bi hauetan koloretako laukiak ez daude harriaren barruan, kanpoan baizik, "hemen gaude esanaz: batzuk egoera larriagoak jasan dituzte eta zartatuta daude, eta besteak ez hainbeste".

### Euskaldunek argizaiolak erabili ohi zituzten hildakoei argiaren bidez laguntzeko eta horretan oinarritu naiz

Eskulturari beti ere positibismo ideia eman nahi izan dio, ez dio bizitzaren ikuspegi eta sentimendu tragiko eta kristauarekin begiratu. Gainera, eskulturak egiterakoan, gizartea eta hildakoak osotasun batean hartu dituela azaldu digu eta bestalde, kolore biziak erabili baditu, horien bidez tristurari aurre egin eta bizitza aldarrikatzeko izan dela esan digu Huegunek. "Daukagun historia daukagu, baina aurrera egin behar dugu, eta historia ilun horren koloreak, alaiak, biziak, ... jarri ditut."

Ikuspegi orokor eta globaltasuna zentzuzkoa dela uste du, guztiari beste ikuspuntu horretatik begiratzea, nahiz

eta aitortzen duen ondoan hildako bat daukanari zaila egiten zaiola emozioa hori izaten delako. "Zorionez ez dut inguruan hildakorik izan, familia askotan bezala kartzelatan izan den sendideren bat izan ezik, eta horregatik ikuspuntu zabal hori izan du".

Udaletxearen atzeko espazio berriari Askatasunaren Parkea izena ematea eta berak bere lanari "Geroaren Memoria" izenburua jartzea, ondo iruditu zaiou Gotzon Hueguni, bere ustez egokiak dira, "urte batzuek pasatzen direnean pieza ikusten dutenean gogoratu dezaten hemen izan den istorioa".

Lana Jesus Maria Zaballos alkateak zuzentzen zuen aurreko Udalak egindako

eskaera izan zen, baina enkargua gero pribatua izan da, Udaletxeko lanak egin dituen enpresak eskatu eta ordaindu dio lana. Eskultorearen ustez beste edozein partiduren eskaera izan balitz ere, berak pieza hau egingo luke eta orokortasun batetik begiratu lioke.

### Marmol beltza

Markinako marmol beltza erabili du hiru piezak egiteko, "beltzak edo material honek duen presentzia eta serioasunarengatik, hemengo panteoi askotan erabili da, hildakoei kanpoan erabiltzen duen materiala delako, garai bateko estelak harri beltzarekin egiten ziren, eta bestalde, koloretako kubuak hormigoizkoak dira pintura berezi batekin margotutakoak, kanpoan iraun dezaten".

Harriari eman dion testura edo itxura "malkoa" deitzen da, zartadurak egin nahi izan ditu laztasuna irudikatzen, bizitza urratu horiek sentitzen dutena lortzearen. "Hori da



**Hipodromo etorbidea 3**  
Lasarte-Oria  
Tel.: 943 366176  
labegoxo@euskalnet.net

**Etorri gurekin**

kafea hartzera  
gosaltzera  
.....



**Okindegia**  
**Gozotegia**  
**Kafetegia**

**DENA BERTAN EGINA**

**BONBOIAK**  
**OGIA**  
**PASATAK**  
**OPILAK**  
**PASTELAK**  
...



**Oso ondo pasa San Pedrotan!**







nire azalpen edo argudioa, ez dakit gero begiratzera etortzen direnek ikusiko duten ala ez".

Hiru metro eta hamar zentimetro ditu pieza handienak, 2,70 bigarrenak eta 2,15 inguru hirugarrenak. Hiru piezak nahiko geometrikoak dira, "ideia aurrera eramateko abstrakzioan murgildu behar nintzen, ez nuen eskultura figuratibo bat ikusten..."

Hiru pieza jarri ditu multzo bat izan dadin, "bi izan balira, hildakoak batetik eta gizartea bestetik, bata bestearen aurrean edo kontra, enfrentamendu itxura hartzen zuen, eta hiru jarrita multzoa osatzen dute". Hiru hilabete pasa ditu lan egiten, udazkenean hasi eta neguan bukatu du.

#### Hirugarren eskultura

Hirugarren eskultura jarri du Gotzon Huegun-ek bere jaioterrian. Bi Atsokabarran daude: Lehenengoa 1996. urtean jarri zuen, Juanjo Mendiluze herritarren omenez eta hori ere argizaiola bat da,

### *Piezak kalean jartzea gustatzen zait, edonork ikusi ditzake paseatzen doan bitartean, horrek poza ematen dit*

"ez dauka zer ikusirik askoz formatu txikiagoa duen estela bat da". Bigarrena, 1998an jarri zuen ondoko biribilgune batean Saustako sagarrondoei gorazarre egiten dien Sagarra.

Eta Lasarte-Oriako sarrean, geltokiaren ondoan jarri zuena ez da eskultura bere ustez, "plaka bat da, baserria bota zutenean Lasarte jartzen zuen plaka zaharra puskatu zidaten. Berrituta neukanean garai hartako udal aparejadoreak esan zidan ea horrekin eskultura bat egiterik banuen eta marko antzeko bat jarri nion treneko trabesa batzuekin. Gustatzen zait baina ez dut eskulturatzat hartzen. Gauzek bere izena daukate, eta polita edo itsusia, baina

hori kartel bat besterik ez da, niretzat polita. Egiten dugun dena ezin da eskultura eta arte-lan izan".

Bere herrian bertan bere lanak ikustea gustatzen zaio, baina hori baino gehiago lanak kanpoan jartzea: "niri gustatzen zaidana piezak kalean egotea da, museoetara ez da eta herria joaten, eta joaten dena kultura egitera joaten da, ez sentimendu pertsonal bategatik,... baina kalean egotean edonork ikusi ditzake, paseatzen doan bitartean eta horrek poza ematen dit. Kalean ipintzen dituzunean gainera beste dimentsio batzuek daukate, estaldura egiten diezu, harriarekin lan egin,... Saltsa hori oso gustukoa da".

#### Txina eta Errusiara

Beste "enbolada" batzuetan ere murgilduta da Gotzon Huegun. Aurreko urteetan ere egon da beste simposium batzuetan eta han ezagututako mundu osoko eskultore eta lagunei esker, berriro kanpora joateko aukerak sortzen zaizkio.

Horrela, batetik uztailean Txinara doa bi hilabeterako. Azken urteetan, lagun horiek mundu osoko simposium-ei buruzko posta elektronikoak bidaltzen dizkiote eta hain juxtu Errusiako lagun batzuek bidali zioten Txinan egiten den eta izugarriko maila ona duen simposium bati buruzkoa. E-maila jaso zuenez proiekturen bat bidaltzea pentsatu zuen, baina gehiegi landu gabe. "Maketa eskatzen zuten arren, ez neukan ez gogo ez denborarik, beste gauza batzuetan ari nintzelako eta soilik marrazki batzuek bidali nituen", kontatu digu. Hala ere, handik hilabete eta erdira e-maila jaso zuela ingelesez, "zorianak, hautatua

izan zara hemen Txinako Txantxun herriko simposiumean zure eskultura egiteko. Ingelesa ez dut asko menderatzen eta anaiarengana joan nintzen benetan hori ipintzen zuen ziurtatzeko eta bai. Txinako Gobernuak gonbidatuta noa, bi hilabete pasatuko ditut han. Jada iritsi zaizkit, bisa, hegazkineko txartelak,..."

Uztailearen 12tik irailaren 4-5era arte doa Txinara lan berezia egitera: "Gainera lan ezberdin bat egingo dut. El Grekoren plaka bat egin nuen panteoi batean jartzeko eta horrelako lan klasiko bat egingo dut. El Grekoren margo batzuek eramango ditut, eta beraiek aukeratzen dutena, nahi dutena, egingo dut marmol zurian. Mendebaldean ekialdeko arteen zale garen bezala, (budismo, zen, yoga,...) han hemengo kutsua duten gauzak ikusi nahi dituzte. Hau manierismo garaiko lan klasiko bat izango da. Laguntzaile bat jarriko didate eta interpretea ere beharko dut. Ea zer gertatzen den. Ez naiz ni oso abenturazalea, baina enkarguz lan egiten dudanez eta hemen ere lan kontuak arraro xamar daudenez,..." Zailtasunak ditu lana lortzeko: "Ditudan bezeroak nahiz eta dirua eduki, denak zain daude".

#### Errusian bi urte

Hala ere, bestalde, Txinakoaren ondoren beste gonbidapen bat jaso du Errusian egingo duten erakusketa ibiltari baterako proiektu bat aurkezteko. Bi urtetan zehar Errusiako hainbat hiri ezagunetara eramango den erakusketa honetan bere lan bat erakutsiko da. Argazkiak bidali zituen eta tamaina txikiko eskultura bat aukeratu dute, hain juxtu orain egiten ari dena. "Uztaileko lehenengo astean etorriko dira jasotzera. Ea horrekin ere zer gertatzen den. Ekaterinburg hiritik hasi eta besteak beste, Mosku eta San Petesburgon jarriko dute".

Eta bere helburua, pare bat urterako beka edo laguntzaren bat jasotzea da, enkarguak utzi eta berak egin nahi dituen eskulturak egiteko, mitologiarekin lotutako lan zabal bat prestatzeko.

**ETXEZARRETA**  
1963-ik

**HARATEGIA**

Ondo igaro herriko jaietan!

**EUSKAL OKELA**  
EUSKAL OKELA  
EUSKAL OKELA

**Hipodromo etorbidea 2 • Tel.: 943 361379**  
**LASARTE-ORIA**



# Aurten ere ekitaldi ugari antolatu ditu Ttakunek San Pedro jaietarako

Herriko festetan euskal giroa hedatzea eta jendearen parte hartzea bultzatzea dira Ttakunek antolatu dituen ekitaldien helburu nagusiak

**A**urten ere hainbat ekitaldi antolatu ditu Ttakunek elkarrekin San Pedro jaietan, euskal giroa eta jendearen parte hartzea bultzatzeko asmoz, San Pedro egunean bertan hasita.

## Haurren herri-bazkaria

Ekainaren 29ko eguerdian, haurrak martxan ipiniko dituzte Ttakuneko begiraleek, haurrentzako herri bazkaria antolatu baitute.

Festetan, koadrilak biltzen dira eta ohikoa da festa giroan bazkaldu edo afaltzea. Hau horrela izanik, Lehen Hezkuntzako haurrek aurten ere elkarrekin bazkaltzeko aukera izango dute, Ttakuneko begiraleek hurrekin herri bazkaria egingo dute hamargarren aldiz.

Lehenik eta behin haurren kalejira egingo dute eguerdiko 13:30ean: Zumaburuko Isla plazan hasi eta Atsobakar auzoan bukatuko da.

LH3 eta LH6 bitarteko mailan dauden haurrentzat dago zuzendua bazkari hau. 14:00ak aldera hasiko dira bazkaltzen.

Hala ere ekintza hau ez da jaietako lehengo egunera mugatzen, baizik eta astebate lehenago hasten dira gai hau lantzen. Lehenik eta behin ikastetxeetan kamisetak tindatu egiten dituzte. Koadrila bakoitzak bere blusa izaten du, eta egun honetarako bere kamiseta. Kolore zehatz batekoa eta koadrila bakoitzari



nortasuna ematen dion izen batekin.

Bazkaldu bezain laster, eta udarako beroa uxatu nahian, ur jolasak egingo dituzte eta Busti Blai ur-jaiari emango zaio hasiera. Hau izaten da hurrei gehien gustatzen zaien jai: etxez etxe joatea, balkoi-pean ipini eta ura botatzeko eskatzea.

Lerro hauetatik deialdi bat egin nahi diegu Atsobakar

nortasuna ematen dion izen batekin. Gogoratu ekainaren 29an bertan izango dela haurren herri-bazkaria eta jolas guztien ondoren Busti Blai ur-jaiari emango zaio hasiera. Haurrek ura botatzen ez badute ezin izango baita jai burutu.

Beraz, badakizue, animatzen zareten guzti-guztiak zaudete haurren herri-bazkariara gonbidatuta. Animatzen

denak Ttakunen eman behar du izena.

## Sorgin-Dantza

Egun berean, arratsaldean, Sorgin-Dantzaren desfilea izango dugu herriko kaleetan zehar. Sorgin-jaiaren sorrera gaur egun desagerturik dagoen Tximua elkarteari zor diogu, beraiek antolatu zuten 1992ko ekainean lehen aldiz jada ohitura bihurtu den ekitaldi hau.

Argi zituzten lortu beharreko helburuak: alde batetik, Lasarte-Oriarekin identifikatuko zen jai antolatzea, eta bestetik, festetan euskal giroa indartuko zuen jai lortzea. Ttakunek 1994. urtean hartu zuten Sorgin-Dantzaren antolaketa bere gain.

Lehen urteetako balantzea positiboa izan da benetan. Alde batetik, behin betirako ziurtatu da dantzaren iraupena. Bestetik, Lasarte-Oriari nortasuna ematen dion jai bihurtu da, eta bukatzeko, jai honen bidez euskal kulturak herriko jaietan merezi duen tokia berreskuratzea lortu da.

Gainera iaztik, helduen zortzikotea izateaz gain, gaztetxoan zortzikotea ere osatzen da, beraz aurrera goaz.

Ekainaren lehen egunetan hasi ziren Sorgin-Jaiaren parte hartuko duen jendearekin ikastaro eta entsaioak Felix Telleriaren gidarpean. Ekitaldia arratsaldeko 18:15ean hasiko da Oria auzoan eta 20:00etan bukatuko da.

Bidean zehar zenbait lekutan dantzatuko dute: Orian bertan, Biyak Bat zaharren egoitzaren aurrean, Udaltxearen parean, Sorgin-Jaiaren egunetan...

Azkeneko dantzaren aurretik pregoia irakurriko dute Jalguneko Elkarteko kideek. Aurten 20 urte betetzen ditu elkarrekin, eta urte guzti hauetan eginiko lanaren errekonozimendua egin nahi zaie ekitaldi honen.

**Oso ondo pasa San Pedrotan !**

**FESTETAN  
OGITARTEKO BEREZIAK  
EGONGO DIRA**

Ezkontza ondorengo festa  
luzatu dezakezu gurean.  
Erreserbatu lehenbailehen

**TABERNA**  
**Buenetxea**  
**KAFETEGIA**

**Pablo Mutiozabal 2 • Tel.: 943 369508  
LASARTE-ORIA**



**Pintxo  
beroetan  
aukera  
zabala**

**IMPORTAZIOKO  
GARAGARDOAK**





### Aupa Quartet Jalgin

Bartzelonatik etorritako Aupa Quartet soka lauko-  
teak kontzertu bikaina eskaini zuen iazko martxo-  
an Jalgin eta aurten San Pedro jaietara datoz  
entzuleak goza araztera.

Musikarietako bat herrikoa dugu, Asier Suber-  
biola biolinarekin; beste biolin-jolea londrestarra  
da Alexander Cameron; biolarekin Felipe Escalada  
madrildarra arituko da eta biolontxeloarekin Martin  
Melendez kubatarra.

Emanaldi ederra eskaintzeko asmoz datoz,  
beraien erreperitorioan abesti ezagunen bertsoiak  
ere joko dituzte, esate baterako Mikel Laboaren  
Haize Egoa eta Pulp Fiction pelikulako abestia.

### Zikiro afaria

Sorgin-Dantzaren ekitaldia  
amaitu ostean, urteroko herri-  
afaria, hau da, zikiro afaria  
izango da iaz bezala Loidiba-  
rrenen, Sorgin Jaien gunean,  
iluntzeko 21:00etan. 200  
lagunentzako afaria antolatua  
da, urtetik urtera gero eta  
jende gehiago biltzen da afal-  
tzera.

Nahi duzuen guztiok txar-  
telak salgai izango dituzue  
Jalgi tabenan eta Ttakunen  
bulegoan 20 euroren truke.

Festa giro eskaldun eta  
alai batean afaldu ondoren,  
afaloste girotua izango da:  
Laket taldearen eskutik, han-

kak pittin bat arinduz festei  
hasiera ona emango zaie.

### Bertso-saioa

Urtero egiten den San Pedro-  
tako bertso-saioa izango da  
herriko patrioiaren egunean,  
ekainaren 29an, kulturetxeko  
auditorioan gaueko 22:30etik  
aurrera. Ekitaldiaren antola-  
tzailea Ttakun Kultur Elkarteko  
bertso-lantaldea izango da  
urteroko moduan, herriko  
jaietan ere bertsozaletasuna  
zabaltzeko asmoarekin.

Aurreko urteetan bezala  
aurten ere sei bertsolari izan-  
go dira kantuan: Andoni  
Egaña, Maialen Lujanbio, Jon

Maia, Unai Muña, Patxi  
Etxeberria eta Ane Labaka,  
gai-jartzailea, berriz, Andoni  
Otamendi izango dugu.

Esan beharrik ez dago goi-  
mailako bertsolariak izango  
direla kulturetxeko ohol-tza  
gainean, ez dute, beraz, aur-  
kezpen handirik behar.

Sarrerak salgai egongo dira  
kulturetxean ekainaren 27tik  
aurrera, arratsaldeko 18:00eta-  
tik 21:00etara 5 euroren truke.

### Musika Jalgin

Jalgi kafe-antzokia ere festa  
giroan murgilduko da. Oste-  
gunean, hilaren 30ean, kon-  
zertu bat antolatu dugu

gaueko 23:00etatik aurrera.  
Aupa Quartet, soka lauko-  
teak emanaldia eskainiko du.

### Kantujira

Bigarren aldiz egingo da Kan-  
tujira herrian eta Xumela  
abesbatzak gonbidapena egin  
nahi die abestea gustatzen  
zaien herritar guztiei.

Erreperitorioa oso ezaguna  
izango da, euskal abesti tradi-  
zionalak kantatuko dira batez  
ere. Kantatzeko hitzordua goi-  
zeko 11:30ean izango da  
Sagardotegi kalean.

Ordu eta erdiko ibilbidea  
izango da herriko kaleetan  
zehar eta amaiera Sorgin

Jaien gunean emango zaio.

### Sagardo dastatzea

Jaiak ondo agurtzeko, larun-  
batean, uztaillaren 1ean berriz,  
sagardo dastatzea izango da.  
Ekitaldi hau, aurten ere Villa  
Mirentxuko atzealdean egingo  
da, zuhaitzpean. Arratsaldeko  
18:00etan hasi eta 20:00ak  
bitarte luzatuko da.

Herriko baserrietako sagar-  
do eskainiko da probatzeko,  
eta girotzen Amalur eskolako  
trikitilariak izango dira bertan.  
Aterpeko kideak ere bertan  
izango dira sardinak banatzen.  
Etxean geratzeko aitzakiarik ez  
da, beraz, aurtengoan ere. •

# MUGICA & ABURRUZA

aseguru artekaritza, S. L.

<ul style="list-style-type: none"> <li>*IBILGAILUAK</li> <li>MOTOZIKLETAK</li> <li>AUTOMOBILAK</li> <li>AUTOKARABANAK</li> <li>FURGONETAK</li> <li>KAMIOIAK...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>*BIZITZA ETA ERRETIROAK</li> <li>*OSASUNA</li> <li>*ISTRIPUAK ETA GAIXOTASUNAK</li> <li>*ERANTZUKIZUN ZIBILA</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>*ETXEBIZITZA ETA KOMUNITATEAK</li> <li>*INBERTSIOAK</li> <li>*PYMEAK...</li> </ul>
---	--	---

**San Pedro jai zoriontsuak opa dizkizuegu !**

**Ganbo kalea I, LASARTE-ORIA**  
Tel.: 943 362275 & Faxe: 943 372413

## Jai alaiak opa dizkizuegu !

# EGUNEKO MENUA DANTZA BOKATAK KONTZERTUAK

ABEND

KAFE-ANTZOKIA

**Pablo Mutiozabal 5 • Tel.: 943 372089**  
**LASARTE-ORIA**



# Serranos igeltserotza iturgintza



Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Gas-instalazioak  
Berokuntza eta pintura

Erakusketa: Zumaburu kalea 5, atzea • Tel.: 943 366681 • LASARTE-ORIA




## IRIGOYEN OPTIKA



San Pedro jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Largoenea 1, Tel.: 943 371047  
Lasarte-Oria



## Zorion-agurrak



**Juan Mari**

Zorionak zure gurasoen partetik.



**Nahikari**

Zorionak txiki-txiki zure lehenengo urtebetetzear aitatxo, amatxo eta famili guztiaren partetik.



**Ekain**

Zorionak maiz zure I. urtebetetzear. Txokolatezko muxuak aiton-amona, guraso eta familiaren partetik.



**Garikoitz**

Zorionak familiaren partetik muxu handi bat. Ondo ospatu bogtgarrena.



**Maria eta Silvia**

Zorionak zuen urtebetetzear! Ondo pasa eta muxu handi bat familiaren partetik, bereziki Maitane, Endika eta Julenen partetik.



**Mirari**

Zorionak eta jarraitu beti bezain alai!!!



**Olatz**

Zorionak zure laugarren urtebetetzear famili guztiaren partetik. Muxu pila bat.



**Saioa**

Zorionak etxeko printzesari! Zazpi muxu potolo Eneko, aita eta amaren partetik.



**Irati**

Zorionak zure urtebetetzear! San Pedroko egun polita pasatzea opa dizuegu etxekoek!



**Markel**

Zorionak Markel zure hirugarren urtebetetzear eta txokolatezko muxuak familia guztiaren partetik.



**David**

Zorionak aitatxo Ander, Unax eta amaxoren partetik.

## Oharrak

**Maria Auxiliadoraren meza**  
Zumaburuko Arantzazuko Amaren kaperan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da ekainaren 24an, ostiralean, arratsaldeko 17:00etan.

**Lasarte-Oriako ostalarien elkarteko zozketak**  
Herrian sortu berri den ostalarien elkarteak (AHLO) hainbat zozketa antolatatu ditu San Pedro jaietarako: produktu iberikoen saskia, itsaskiena eta euskal produktuenak.

Elkarteko tabernetan hartu daiteke parte zozketetan: Abend, Andatza, Avenida, Buenetxea, Dakara, Galiza, Ilargi, Illun, Insausti, Kanto, Lurra XXI, Naiban, Sasota, Sancho, Sustrai, Trumoi, Udaberri, Yolanda, Mendi kafe-rock.

**Pisten erabilpenean ordu libreak**

Udalaren Kirol Instalazioak erabiltzen dituzten talde federatu gehienek denboraldia amaitu ondoren, erabiltzaileei gogora arazi nahi diegu, hurrengo denboraldia hasi bitartean (irailean), ordu libreak aurkitzeko aukerak handiagoak direla bai kantxak

okupatu edo alokatzeko. Tel.: 943 376 182.

**Kirol jardueren eskaintza**

Udan hainbat kirol jardueren eskaintza dago Udal Kiroldegian. Jarduerak honakoak dira: aerobika, indor txirrin-dularitza, pilates, body-pump, gap eta igeriketako ikastaroak. Parte hartzeko interesik duenak, ekainaren 27ra arte du epea, 943 376182.

**Kirol udalekuak**

Kirol udalekuak antolatu ditu Kiroldegia Lasarte-Orian. 8 eta 12 urte bitarteko haurrentzat daude zuzenduak. Izena emateko edo informazio jasotzeko jo Udal kiroldegiko bulegora 10:00-12:30 eta 17:00-19:00.

**San Pedro jaietan kiroldegiko ordutegia**

Ekainaren 28an 7etatik 13etara egongo da zabalik, arratsaldez itxita. Ekainaren 29an eta 30ean itxita egongo da.

**Tourreko porra**

Ostadarrek Tourrerako porra antolatu du. Tourra uztailearen 2an hasten da eta boletok egi-

teko epea larunbatean bertan 21:00etan amaitzen da. Boletoak ohiko tabernetan aurkitu-ko dituzue 7 euroren truke.

**Lasarte-Oriako Tennis Txapelketa**

Uztailearen 1etik 15era arte jokatuko da eta izena emateko epea ekainaren 27an amaitzen da. Informazioa: lasartenis@hotmail.com eta 666 337 319 telefonoan.

**Janari-manipulatuak ikast.**

Elkolab. S. Coop. enpresak, Lasarte-Oriako Udalaren Sanitateko Departamentuarekin elkarlanean, janari-manipulatuak ikasteko karneta ateratzeko ikastaroa antolatu du, arrisku handigokoa.

Ikastaroa uztailearen 6an emango da. Informaziorako: OMIC 943 361605 edo Elkolab, 943 533 303.

**Antzerki eta dantza eskolan izen-ematea**

Kukuka antzerki eta dantza eskolan aurrematikulazioa irekia dago. Interesa duenak informazioa eskatu dezake telefono zenbaki honetan: 655 847 345.

# tsst

autobusen

TST

ferbitzua

Ondo pasa  
herriko jaietan!



Gure herriko autobusekin,  
Ospitaleetara  
ere bai!

Azkarra, segurua eta eroso  
Tel.: 943 361740  
www.tsst.info





# MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

*Foto depilazioa argi pultsatuekin*

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Oso ondo pasa herriko jaietan!

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

# ANTONIO URRUZOLA

## AROZTEGIA

ZURGINTZA eta EBANISTERIA

**San Pedro jai onak pasa!**

Asteasuain polig., 3. pabilioia  
20170 • USURBIL (Gipuzkoa)  
Tel./Faxa: 943 376415  
Mobila 687 845597

Etor zaitez erakusketa ikustera!

## Herriko jai zorionsuak opa dizkizuegu!



# aterpea

lasarte/oria



# InmoGes

## Inmobiliaria

Oso ondo pasa festetan!



Kale Nagusia 12-3  
Lasarte-Oria  
Tel.: 943 376662



Asko disfrutatu San Pedrotan!

# Riojanos

## Erretegia

Afariak, bazkariak, pintxoak, ...



Uistin kalea 13 • Tel.: 943 362720 • LASARTE-ORIA



# DEL ORIA

## KRISTALDEGIA

- ISPILUAK
- BEIRA APAINGARRIAK ETA ALAKATUAK
- MERKATARITZA-INSTALAZIOAK
- DUTXA-ITXIDURAK
- KRISTALGINTZA OROKORRA

Uistin kalea, 11 (Zubieta Plaza)  
Tel./Faxa: 943 36 23 52 - Mugikorra: 607 234 522

LASARTE-ORIA

Oso ondo pasa gure herriko jaietan!

# MANOLI

## estankoa

San Pedro jai zorionsuak opa dizkizuegu!



Geltoki 15 • Tel.: 943 362492 • LASARTE-ORIA

Alaitasuna San Pedrotan!




# Agate

ESTETIKAKO ARETOA

- Makillajea
- Manikura
- Pedikura
- Solariuma
- Laser bidezko Depilazioa *berria*
- Depilazio elektrikoa
- Aurpegiko tratamenduak
- Masajea
- Gel-ezko azazkalak *berria*

Kale Nagusia 51 • Tel.: 943 370549 • LASARTE-ORIA



# ALTZARIAK

## ONAK ETA MERKEAK

Igaro ondo San Pedro jaiak!

# IZARI-BI

Oria etorbidea 3  
Brunet polig., 42. pab.  
Tel./faxes: 943 360496  
LASARTE-ORIA



# Garmendia

## OIHALAK

Ondo pasa San Pedrotan!

Uistin kalea 11  
Tel.: 943 376947  
20160 LASARTE-ORIA





## Jaiak Okendora itzuli dira



Alkateak eta hainbat zinegotziek aurkeztu zuten asteazkenean Udalak antolatutako jaien egitaraua.

San Pedro Jaiak bi urtetako parentesiaren ondoren Okendora itzuliko dira eta asteazkenean txupina ere Udaletxe berritik jaurtiko dute aurten Bilduko ordezkariak. Aipagarri da hau ere, San Pedro egunean hasiko direla jaiak ofizialki, egitarau ofizialeko ekitaldiak alegia, nahiz eta Sorgin Jaiak bezperan hasiko diren txosnetan. San Pedro eguneko bertso saioan, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Jon Maiak kantatuko dute, herriko Patxi Etxeberria, Ane Labaka eta Unai Muñbarekin batera. Kontzertuei dagokionez, aipagarriena, ostegun gauean Reincidentes Sevillako rock taldearen emanaldia izango da. Kontzertu hau ere Okendon izango da, gaueko 12:30ean hasita. Aurretik herriko maketa lehiaketa irabazi duen Flashback taldeak joko du gaueko 11:00etatik aurrera.



Kale Nagusia 39  
Tel.: 943 372668  
Faxa: 943 370737



## Ostirala 24

16:00-20:00

Koadrilen arteko Futbol Txapelketaren finalak, Michelin go kirol gunean. Kale hezitzaileen eskutik.

## Larunbata 25

16:00etan

Calvako txapelketa, Atsokabar auzoko zelaian. Lasarte-Oriako Sport Calva taldeak antolatuta.

## Igandea 26

20:00etan

Erketz Dantzari Taldearen ekitaldia, Manuel Lekuona kulturetxean.

## Astlehena 27

16:00-20:00

Kaleko jarduerak, jolasak eta tailerrak 10 eta 18 urte bitarteko neska-mutil eta nerabeentzat, kaleko hezitzaileek antolatuta Andatza Plazan.

## Asteazkena 29

San Pedro eguna

11:00etan

Jaiei hasiera emateko, txupinazoa botako da Udaletxetik, eta Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa abiatuko da, Oriako Txaranga lagun duela.

11:30etan

Meza nagusia, San Pedro parrokian.

11:30etan

Eskuz pilota-partidak, jubentziak eta I. mailako seniorrak Loidibarrengo frontoian Intza Kirol elkartearen eskutik.

12:30etan

Omenaldia, egingo zaio udaltxeko batzar-aretoan Daniel Adriani.

12:30etan

Herri kirolak Okendo plazan. Bi aizkolariren arteko norgehiagoka, trontzako proba, egurra mozte...



13:30etan

Haurren kalejira, Isla plazatik Atsokabarreraino Oriako Txaranga lagun dutela.

14:00etan

Haurren herri-bazkaria, Atsokabarko parkean 9 urtetik gorakoentzat Ttakunen eskutik.

15:00etan

Uretako jolasak eta ondoren Busti Blai festa, Atsokabarren Ttakunen eskutik.

17:00etan

Oriako Txaranga, herriko kaleetan zehar ibiliko da.

17:00etan

Zezen-ikuskizuna haurrentzako, Atsokabarren jarritako zezen-eskortan.

17:30etan

Askatasunaren parkea eta bertan dagoen Gotzon Huegun herritarraren "Memoriaren Geroa-La memoria del mafia-na" eskulturaren inaugurazioa.

18:00etan

Oriako Sorgin-Dantza abiatuko da Oriatik, eta Okendo plazan amaituko da pregoiarekin. Ttakunen eskutik.

21:00etan

Zikiro-afaria, txosnetan Ttakunen eskutik.

Ondoren,

Laket taldearen emanaldia, txosnetan Ttakunen eskutik.

22:30etan

Bertso saioa, Manuel Lekuona Kultur etxean, Ttakunen elkarte

eta Bertso eskolaren eskutik.

Parte-hartzaileak:

Andoni Egaña  
Maialen Lujanbio  
Patxi Etxeberria  
Jon Maia  
Ane Labaka  
Unai Muñoa

Gai-jartzaileak: Andoni Otamendi.

23:00etan

Dantzakiak Okendo Plazan, Kresala taldearen eskutik.

## Osteguna 30

11:00 - 13:30

Haurrentzako parkea, gazteluak, tailerrak, txiki-tailerrak super-ludoteka... Okendo Plazan.

12:00etan

Pasapayasos ikuskizuna herriaren zehar eta Okendo plazan amaiera: orekariak, hankaluzak, pailazoak, akrobatik...

16:00etan

Erlojupeko igoera eta goitiberak, Loidi kaleetik Zabaletarainoko bidean.

16:30 - 20:30

Jolasak, F1, Roller Ball, simuladoreak... 10 urtetik gorakoentzat Andatza Plazan

16:30 - 20:30

Haur parkea, gazteluak, tailerrak... Okendo Plazan

16:30etan

Oriako Txaranga, herriko kaleetan barrena ibiliko da

17:00etan

Haurrentzako bigantxak, Saka ganadu-etxearen Atsokabar auzoko zezen-eskortan

17:30etan

Erraldoiak eta Buruhandiak, Oriako Txaranga lagun dutela, herriko kaleetatik ibiliko da

19:00etan

Fonotarcos, umorea eta imitazioa Isla plazan Sevillan bizi diren bi artista kubatarren eskutik.

20:00etan

Biyak Bat elkarteko abesbatzaren emanaldia Manuel Lekuona kulturetxean.

23:00etan

Varadero orkestrarekin dantzakiak Isla plazan.

23:00etan

Reincidentes, taldearen kontzertua, Okendo plazan. Talde abiatzaile moduan maketa lehiaketako herriko irabazle den Flashback taldea.

## Ostirala 1

07:00etan

Xexenak, Saka ganadu-etxearenak, Atsokabar auzoan instalatutako zezentokian.

11:30-13:30

Oriako Txaranga, herriko kaleetan barrena ibiliko da giroa alaitzen.



# DAKARA JATETXEA

Asko disfrutatu San Pedro jaietan !

Eta orain...  
eskatu eta  
eramango dizugu !

Etorri eta jaiak ospatu gure jaki goxoak dastatzen

Espezialitatea ho sto piletan  
Errazioak  
Entsaladak  
Ogitartekoak

Kale Nagusia 8 behea • Lasarte-Oria 20160 • Tel.: 943 575859



**11:00 - 13:30**

**Haurrentzako parkea,** gazteluak, super-ludoteka, txiki-tailerrak... Okendo Plazan.

**16:30 - 19:30**

**Haurrentzako parkea,** gazteluak, tailerrak... Okendon.

**17:30ean**

**Erraldoiak eta Buruhandiak, Oriako Txaranga** lagun dutela, herriko kaleetatik ibiliko da.

**18:00etan**

**Zoo park,** mugitzen diren animalien parke ibiltari dibertigarria.

**20:00etan**

**Diva di palo,** umorezko ikuskizuna Okendo plazan.

**20:30ean**

**Alboka abesbatzaren** emanaldia Sagardotegi kalean.

**23:00etan**

**Beteranoen danborrada tradizionala,** Oriako Txaranga eta Eibarko Gastadoreak lagun dituztela, herriko kaleetan barrena, Okendo plazan irteera duela.

**23:00etan**

**Oasis musical orkestrarekin** dantzakiak Isla Plazan.

**00:00etan**

**Disko festa Halley Djarekin** eta "40 principales"ko **Olga Grande** esatariarekin, Okendo plazan.

## Larunbata 2

**07:00etan**

**Bigantxak,** Saka ganaduetxearenak, Atsokabar auzoan instalatutako zezentokian.

**08:00etan**

**Diana, Amalur** trikiti eskolako kideen eskutik.

**10:30ean**

**Esku pilota txapelketako finalak** Loidibarreneko frontoian, Intza Kirol elkartearen eskutik.

**11:00ean**

**Kantujira, Xumela** abesbatzarekin eta animatzen diren herritarrekin kaleetan barrena.



Arg.: Javier Zatarain

**11:30ean**

**Haurren Danborrada Tradizionala,** Oriako Txaranga lagun duela, herriko kaleetan barrena ibiliko da.

**12:00 - 14:00**

**Haurrentzako parke bikaina,** ludoteka puzgarria, gazteluak, zezen mekanikoa... Andatza Plazan.

**13:00an**

**Vuelta & vuelta** antezzlana, **Trapu Zaharrak** konpainiaren eskutik, Okendo Plazan.

**16:30 - 20:30**

**Haurrentzako parke bikaina,** ludoteka puzgarria, gazteluak, zezen mekanikoa... Andatza Plazan.

**18:00etan**

**Sagardo-dastatzea eta erromeria Amalurrekin,** Ttakunen elkartearen eskutik, Villa Mirentxuko parkean.

**18:00etan**

**Sardina-jatea,** Villa Mirentxuko parkean, Aterpea elkartearen eskutik.

**19:30ean**

**Estampa baturra** Aragoiar jotarien ekitaldia Kulturetxean.

**20:30ean**

**Malpica uharteko piratak,** itsasontzi zahar batek naufragioa gogorarazten du... Herriko kaleetan barrena ibiliko dira.

**23:00etan**

**Su artifizialen bilduma** botako du Zaragozana Piroteknia famatuak, Atsokabarko parketik.

**Segidan**

**Dantzakiak eta ikuskizuna** Andatza plazan, **Jamaica taldearen** eskutik.

**00:00etan**

**Zezen Suzkoaren** entzierroa, Kale Nagusian.

**00:20ean**

**Izaro eta Heleneren** kontzertua Okendo plazan Batera Live ikuskizunarekin. EITBren Bi Gira lehiaketaren irabazleak ditugu bi neska hauek.

**Jarraian**

**Musika Djen** eskutik, Okendo plazan.

### Oharrak

**Aldez aurreko salmenta,** ekainaren 27tik aurrera, 18:00etatik 21:00etara bitartean, Manuel Lekuona kultur etxean:

- **Bertsolariak 5 euro**
- **Estampa Baturra 5 euro**

**Uretako festa:** Parte-hartzaileek igeri egiten jakin beharko dute, eta bakarrik sartuko dira igerilekura. Abonudunak dohainik sartuko dira, eta abonugabeek 3,30 euro ordaindu beharko dute.

### Gomendioak:

- 1.- Udalak beretzat erreserbatzen du programatutako ekitaldiren bat ezinbesteko kausengatik aldatzeko, kentzeko edo bertan behera uzteko eskubidea.
- 2.- Pertsona guztiei arren eskatzen zaie kasu

egin diezaietela Udaleko enpleguengandik edo agintaritzako agenteengandik jaso ditzaketen agindu partikularrei, eta, bestalde, ez ditzatela oztopa DYArean lanak, festetan interbenitu beharrean gertatuz gero.

- 3.- Parte hartu, ondo pasatu, baina kontuan izan besteenganako errespetua.
- 4.- Errespetatu kaleko altzariak, lorategiak, kaleplazak, etab., lasarteoriatar guztien eta zerorren onerako.
- 5.- Ez oztopatu ez garbiketako lanak, ez zerbiztu munizipalena; kontuan izan zenbait lan egingo dutela, gainerakook festetan ondo pasa dezagun.
- 6.- Debekatuta dago petardoak, suziriak edo antzekoak saltzea.
- 7.- Gogorarazten da debekatuta dagoela 18 urtetik beherakoei alkohola saltzea.
- 8.- Edaten baduzu, ez ezazu gidatu.

### Iturbe familiaren oharra

Betidunik "San Pedro" festetan Bolo eta Tokako tiradak ospatu ziren.

Azkeneko 21 urte hauetan, Jose Antonio Iturberen omenez ospatu ohi izan dira eta aurten 22. tokatzen zen, guk horrela izango zela pentsatzen genuen.

Zori txarrez jakin dugu aurten ez dutela

antolatuta, beraz, Bolo eta Tokako zaleei jakin arazi nahi diegu Iturbe familiak ez duela honekin ezer ikusirik, gu prest geunden beti bezala trofeoak jartzeko eta ekitaldi horietan parte hartzeko.

Sorpresaz gain, pena handia sentitu dugu horrelako ekintza euskalduna, bat batean ez antolatzea.

**Iturberen seme-alabak**

## ELISABETH ESTILISTA

- ORRAZKERAK
- ORRAZKERA BILDUAK
- ILEA LABANAZ MOZTEA
- MISTOA
- ...

Orraztu, moztu eta kolorea  
26 €tik aurrera

Gure hilabeteko bonu  
personalizatuek  
aprobetxatu zaitez !

Hipodromo etorbidea 10  
20160 Lasarte-Oria  
Tel.:943 361597  
647 821361



Elisabeth  
Iturbeindegia

Ondo igaro San Pedro jaietan !



## MARISOL ESTETIKA

- MANIKURA ETA PEDIKURA
- DEPILAZIOAK
- AURPEGI ETA GORPUTZAKO TRATAMENDUAK
- MAKILLAJEA
- ...

Uztailaren 1etik 15era  
Betileen permanentea + pedikura  
35 €





# Sorgin Jaietako X. urteurrena ospatuko da aurten

Sorgin Jai alternatiboak antolatzen hasi zirenetik hamargarren urteurrena beteko dute aurten eta hain zuzen horregatik jaiei hasiera emango dien txupina Sorgin Dantzako kideek botako dute: "duela 10 urte txosnen debekuaren ostean "Txosnak Bai" zioen pankarta eskutian hartu eta bestelako jai eredu batzuen alde egindako apustua" eskertu nahi diete, eta gainera bide batez Sorgin Dantzak 25 urte bete dituela ere kontuan izan dute. Sorgin Jaiek egitarau luze eta zabala antolatu dute eta nabarmendu daiteke hamargarren urteurrena ospatzeko afari berezia prestatuko dutela ostiralean 250 lagunentzat Xirimirin.



**20:00etan**  
Triki-bertsu poteoa.

**22:30ean**  
Kontzertuak:  
- Arramazka  
- Makulu Ken  
- Trikihots

**Asteazkena 29**  
Blusa eguna

**11:00etan**  
Artisau azoka.

**12:00etan**  
Sagardo dastatzea, Buena-  
vista, Otegi eta Urkiola  
sagardotegiak.

**14:30ean**  
Koadrilen bazkaria eta txo-  
txerako barrika. Bakoitzak  
bere janaria ekarri behar  
du eta 5 euroren truke eda-  
ria nahi dena.

**17:00etan**  
Barrene herrikoa.

**17:30ean**  
Mus eta eskoba txapelke-  
tak.

**19:00etan**  
Sorgin Dantza.

**19:00etan**  
Sardina jana.

**19:00etan**  
Erromeria Erketzen eskutik.

**Asteartea 28**  
Pijama eguna

**11:00etan**  
Herritik zehar musika  
herria girotzeko.

**16:00etan**  
Koadrilen jaitsiera (Anda-  
tza plazatik Sorgin Jaiei  
gunera).

**18:00etan**  
Txupinazoa Sorgin dantza-  
ko dantzarien eskutik eta  
brindixa.

**18:30ean**  
Kukukaren eskutik kale  
antzerkia.

**19:00etan**  
Olinpiadak (kalejira, aur-  
kezpena,...).

**18:30**  
Errausgailuaren aurkako  
flashmob.



San Pedro jai zoriontsuak  
opa dizuegu !

# Bideo Lagunak

**BEGIRATU GURE ESKAINTZAK !** Inguruko erakusketarik onena!

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373134  
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

Betiko zerbitzua  
gure  
aholkularitza  
onenarekin





Arg.: Javier Zatarain



Arg.: Bego Bergara

**19:00etan**  
Kale kontzertuak *Juan Mari gogoan zaitugu* Sagardotegi kalean, **Hotzikara, Tri-buto Bad Religion.**

**21:00etan**  
Zikiro afaria Ttakunen eskutik.

**23:00etan**  
Laket taldearen kontzertua Ttakunen eskutik.

**02:00etan**  
Karaokea. Gaua luzatu nahi dutenezat.

**12:30ean**  
Hiru Bi Zast, Egizu Folas antzerkia.

**13:00etan**  
Buru-handiak.

**13:30ean**  
Umeen bazkaria. Bakoi-tzak berea eraman behar du.

**15:00etan**  
Umeentzako altxorraren bila eta ur jolasak.

**16:00etan**  
Krono eskalada eta goitibeherek, Loidi kaletik Zabale-taraino.

**17:00etan**  
Kutxidazu Bidea Ixabel antzerkia, Loidibarreneko frontoian.

**17:00etan**  
I. SJ Eskalada txapelketa, rokodromoan.

**18:00etan**  
Pirritx, Porrotx eta Marimot-sen emanaldia.

**18:30ean**  
Lokal poteoa.

**20:00etan**  
Umeen danborrada. Bakoi-tzak bere danborra eraman behar du.

**22:30ean**  
Kontzertuak:  
- Esne Beltza  
- DZ

- Plan B  
- La Pop'illa

**22:00etan**  
Afaría eta bideoa, Xirimirin.

**00:00etan**  
Kontzertuak:  
- Fan&Go  
- DJ Ruben

Gauean zehar jolasak

**14:00etan**  
Gazte bazkaria.

**16:30ean**  
Desfilea, zanpantzarrek lagunduta.

**17:00etan**  
Herrien arteko olinpiadak.

**18:30ean**  
Bertso-saioa.

**19:30ean**  
Dantza saioa.

**20:30ean**  
Saiheski jana eta barrika.

**22:00etan**  
Agur antzerkia.

**22:30ean**  
Kontzertuak:  
- Blaka  
- The Sugar Balls  
- 3 gabe 2

Globo gerra

## Osteguna 30

Umeen eguna

**11:00etan**  
Umeen jolasak.

**11:00etan**  
Umeen danborradarako arropa prestatu.

## Ostirala 1

X. urteurrena eguna

**16:00etan**  
Oriako jaitsiera, batukadaz girotua.

**18:00etan**  
Kamioi Rock:  
- Ahuen

## Larunbata 2

Gazte eta elkartasun eguna

**06:00etan**  
Gosaria, txokolatea eta kalejira herria girotzeko.

**11:00etan**  
Bakailao txapelketa, eta ondoren jatea.

**12:30ean**  
Kantujira, Xumelaren eskutik.



Arg.: Alex Ramos



**AZKEN MUGA TABERNA**

Oso endo pasa San Pedrotan!

Beko bidea 2 behea • Lasarte-Oria  
Tel.: 943 115808

**GURE ETXEA**

Nagusia 14 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 362729



# Lasarte-Oriako Bakailao Txapelketa jokatu da Sorgin Jaien gunean

Sorgin Jaietako egitarauaren berrikuntzetako bat dugu bakailao txapelketa hau. Larunbatean egingo da lehenengo aldiz txapelketa, uztailaren 2an, Sorgin Jaietako gunean (Loidibarreneko pilotaleku berriaren ondoan). Partaideek, 12:00etan bertaratu beharko dira eta txokoa prestatuko zaie (sua, mahaia...).

**L**asarte-Oriako edozeinek hartu dezake parte Bakailao Txapelketan. Bai maila pertsonalean nahiz talde edo elkarte baten izenean. Hala ere 2 edo 3 laguneko taldeak osatu beharko dira su bakoitzeko. Sukaldari profesionalak ezingo dute parte hartu, txapelketa herrikoa bultzatu nahi delako.

## Azpiegitura

Jai batzordeak, sua eta mahaia jarriko ditu bakailaoa prestatu ahal izateko. Sukaldeko ontziak aldiz norberak eraman beharko ditu.

Osagaiak dagokienez berriz, jai batzordeak bakailaoa, baratxuria eta olio jarriko ditu (guztiak kalitate bereko osagaiak izateko). Norberak beste osagairen bat bota nahiko balio (patata...)

berak ekarri beharko du.

## Prestatu behar dutena

Partaideek 10 razio bakailao prestatu behar dituzte. Bakailaoa pil-pil erara prestatu behar dute eta eguerdiko 13:00 eta 14:00 bitartean amaitu behar dute. Lehen aipatu bezala, pil-pil erara egiteko oinarritzko osagaiak antolatzaileek jarriko dituzte, zerbait gehitu nahi izanez gero norberak ekarri beharko du. Behin prestatutakoan kazuela epai mahaikoei eramango zaie bere lana egin dezaten.

## Epai mahaia

Sukaldari profesionalak osatuko dute epai mahaia eta egin-dako lanaren aurkezpena eta zaporea hartuko dira kontuan epaia egiterakoan.

## Prestatutakoa jan

Behin txapelketa amaitutakoan bazkaria egingo da Sorgin Jaietako gunean, besteak beste prestatutako bakailaoa jango delarik. Bazkarirako txartelak aurretik salgai egongo dira.

## Izena emateko

Izena emateko zerrendak herriko Elkarte Gastronomiko ezberdinetan eta hainbat tabernetan jarrita daude dagoeneko.

Parte hartu nahi dutenek ekainaren 30a baino lehen egin behar dute, hori baita azken eguna.

## Txapelketako sariak

Txapelketa bakarra izango da, bai elkarte nahiz norbanakoei parte hartuko dutena.

Hogeita hamar taldek parte hartu ahal izango dute gehienez eta honako sariak banatuko dira:

- Lehen sailkatua: Txapela eta 2 lagunentzako afaria
- Bigarren sailkatua: arkumea eta ardo kaxa bat
- Hirugarren sailkatua: 2 kilo txuleta
- Lehen elkarteak: egurrezko kutxara erraldoia.



Atzo txapelketaren aurkezpena egin zuten eta batzuk izena emateko aprobetxatu zuten.

## Bakailaoa pil-pil erara

**H**emen duzue Bakailaoa pil-pil erara egiteko errezeta bat. Hala ere, sariren bat eramateko asmorik izanez gero, agian hobeto duzue etxekoei galdetzea, bakoitzak bere trikimailua izaten du eta... Animatu zaitzete!

### Osagaiak (4 pertsonentzat)

- 300 gramoko lau xerra bakailao.
- 0,4 graduko garraztasunadun litro erdi oliba olio.
- Gradu bateko litro erdi oliba olio birjin.
- 2 baratxuri ale.
- Pipermin bat.

### Trikimailua:

Bakailaoa ondo sendotzeko tenperatura handian askoz zailagoa da hori lortzea, eta tenperatura txikian, berriz, errazagoa.

### Prestakuntza:

1.- Bakailaoaren gazi puntu egokia lortzea da, zalantzarik gabe, prestakuntzako pausorik zailena.

Bakailaoa ondo gezatze, 15 graduko tenperaturan dagoen uretan garbitzea komeni da.

Ura hotzago balego denbora gehiago beharko genuke; beroago egonez gero, berriz,

bakailaoa hondatu egingo litzateke.

2.- Kazola batean bi olio motak jarri baratxuria eta piperminarekin, eta ondoren sutan ipini baratxuria gorritzen hasi arte. Xigorren hasitakoan olioak sutik kendu.

3.- Olio epela kazola batean jarri, eta bakailao xerrak gehitu azala gorantz dutela. Xerrok su txikian egosten utzi, laminak tonu garden batetik tonu mate batera igaro arte.

4.- Kazola sutatik kendu eta bakailaoa bost minutuz jalkitzen utzi, eta ondoren bakailaoa atera eta kazola hotz batean ipini.

Behin bakailaoa epelduta, epel-hotz antzean egongo den olioan eginda dauden bakailao zatien gainetik bota behar da.

Olio pixkanaka botatzea komeni da, kazola gorabehera mugituz saltsa egiten joan dadin.





**Oso ondo pasa herriko jaietan !**

**San Pedro festetan :**

- "San Pedro" menua 20€
- Umeentzako menua 6€
- Bokatak
- Bestelakoak

**Leku berri bat betikoentzat**



Nagusia 31  
Tel.: 943 573885



# 25 urtean zapatarri Zumaburrun

Extremaduratik etorri zen Landerrek zabaldu zuen dendan segitzen du Oskar semeak

Extremaduratik etorri zen duela 40 urte baino gehiago, Caceres ondoko Torrejoncillo herrixkatik hain zuzen, hainbat urtetan Zumaburuko zapata konpontzailea izan den Leandro Iglesias, edo Lander, horrela deitzen baitiote lagunek Lasarte-Orian. Euskaldunek oso ondo hartu dutela aitortzen du, lagun handiak egin dituela hemen. Zumaburrun jarri zuen dendak 25 urte bete ditu, orain Oskar semea arduratzen da zapata eta beste hainbat gauzen konponketez, eta aita semeek eman digute ofizioaren berri.

Jen ALTUNA

**D**enda berria duela 25 urte ireki zuen Lander Iglesiasek Zumaburrun baina aurretik ere aritu zen zapatak konpontzen Intxaurren eta Michelinen Antonio Iparragirre zeukan dendan. Ia jaio zenetik jardun du zapata artean.

Etxean ikasi zuen zapatarri ofizioa, Torrejoncillon: "Aitarrentzat lan egiten genuen, bost anai eta kanpoko beste bi langilek". Extremadurako soroetan erabiltzeko oinetakoak egiten zituzten, oso osorik, larrua moztetik hasita, eta ordukoa kontatuz, ia 50 urte eman ditu zapatarri.

Memoria ona du eta gogoa dauka, orduan, egunean bakoitzak hiru bat pare egiten zituela aitak herriz herri saltzeko. "Baziren langile finak egunean lau edo bost pare egiten zituztenak" kontatu digu Landerrek. Nekazarientzako botak egiteko kamioien goma erabiltzen zuten zola egiteko eta kalamuzko hariarekin josi.

"Gaur egun ez da zapatarrik fabrikatzen lehen bezala. Gu artisauak ginen, hauek artisau modernoak dira" esan digu semeek Landerrek.

Hona etorri eta mahai tresneria egiten zuen fabrika batean hasi zen lanean, baina Michelingo futbol zelai ondo-

an jarduten zen Antonio Iparragirre zapatagilearekin elkartu, eta berarekin aritu zen hainbat urtean gero, hark berea ixtean, duela 25 urte bere denda zabaldu zuen arte.

## Aitak semeari erakutsia

Berak aitarengandik ikasi zuena erakutsi die semei ere. Bi alabek ez, baina bi seme jarraitu dute aitaren bidea: Roberto seme zaharrena hasi zen aurrean aitarekin lanean, soldaduskara joan zenean utzi zuen arte. Orduan Oskar sartu, haren lekua hartu eta, gaur arte: berak segitzen du aitak ireki zuen dendan, Lasarte-Orian. Robertok, aldiz, beste zeregin batzuetan aritu ondoren, duela urte batzuek Ibaetan jarri zuen zapata-denda.

Argi dago beraz aitak semeari erakusten dion ofizioa dela zapata-konpontzailearena. Aitaren ustez semeen erabakia aukera ona izan zen, lana bazegoelako, eurek esan omen zioten jarraitu nahi zutelako. Landerrek esan zigunez ikasle onak izan dira gainera bi semeak, "nahiko bixkorrak dira eta jendea pozik dago".

## Lander Iglesiasek amonak ura eta irina ondo nahastuta egindako ahi bereziarekin itsasten zituen oinetakoak eraginik krisiak

Oskar semearen ustez, aldiz, "jarraitu nahi baino, beste erremediorik ez zuen izan". Oskar zerotik hasi zen lanean, dakiena aitak erakutsi zion baina 25 urte daramatza ordutik dendan eta urteurrena ospatzen ari dira.

Landerren aita, aiton-amonak eta birraitona-amonak ere zapataginarik ziren. Ondo gogoratzen du bere amonak ura eta irina ondo nahastuta egindako ahiarekin itsasten zituela oinetakoak. "Eseri eta zapaten zolak ahiarekin itsasten zituen, egun pare bat utzi, takioia eskuz egin, forma eman eta itsatsi".

## Krisia

Krisi garaia nabaritzen dela diote aita-semeek. Lander aita zela esplikatzen: "Nire ustez, zapata diseinatzaileen eta zapataginarik menpe dago hori, egiten dituzten zapaten kalitatearen menpe... Zapata onak egiten baldin badituzte, beti konponduko dira, dirua balio dutelako". Beraz zapata konpontzaileak lokartzen ez badira, eta bestalde tresneria berria erabiltzen eta aurrerapean egiten baldin badoaz, iraungo dutela uste du. Dena den, epe batetik ari dela argitu digu: "ez dakit nire biloben garaian etorkizunik izango duen, baina, berak, Oskarrek bai". Semeak ere ez du lanik bukatuko zaionik uste.

Landerrek krisi bat baino gehiago gainditu dituela esan

digu, baina bere ustez ofizio honetan ez du hainbesteko eraginik krisiak.

Semeak, aldiz, krisia alde guztietara iritsi dela dio, eta zerbait nabaritu duela. Bi aldeak ikusten dizkio ona eta txarra: "Alde batetik, krisi garaian berriak erosi beharrean zaharrak konpontzeko joera izaten da, baina bestalde jendeak ez baditu erosten, ez dago konponketarik. Gure krisia Txinako produktuak ere badira, hamar euroan saltzen diren oinetakoak".

## Erosi orduko konpontzera

Landerrek ere nabaritzen du kalitatean egon den galera: "40 euroko oinetakoak erosi ordez 20koak erosten ditu jendeak. Kalitatearen galerak, eragina dauka, eskasagoak erazago apurtzen dira eta..." Landerrek kasu kurioso bat aipatu zigun, "zapata pareak erosi asteazkeneko merkatuan, handik dendara joan, zola aldatu eta konponketa zapatak pareak berak balio zuena baino garestiagoa izan zen".

Gaur egun, oinetako bat hondatzen denean, belaunaldi berrietakoek bota eta berria erosteko joera dute, eta normalean iruditzen zaie kalitate eskasekoak direlako: "Merkeak bai baina ez dira narruzkoak, plastikozkoak baizik, eta bi egunetan pitzatzen hasten dira edo zola altxatu egiten zaie gaizki itsatsia dagoelako. Normalean hain merkeak izanda.

Askotan ez dut ulertzen, baina ekarri egiten dituzte konpontzeko. Orain ere 35-40 euroko zapatilak hondatzen direnean konpontzen dira. Baina emakumeen 15 euroko botak konpontzeko 7-8 euro balio badu, konponketa horiek gainbehera egingo dute. Hala ere, dena, esan bezala, zapatak egiten dituzten enpresen menpe egongo da".

## Zapata dotore baina ahulak

Askotan, kalitate txarra dotoreziarekin lotuta dagoela esan digu Landerrek: "Kalitate oneko oinetakoak egiten segitzen baldin badute egingo dira konponketak ere. Dotore janzten denak, edo jendaurrean egon behar duenak ondo joan behar baitu. Horrelako oinetako dotoreek zola finagoa izaten dute, eta gastatzen denean aldatu eta berria jarri beharra izaten da, bestela oinetakoak oso ondo daudelako eta merezi duelako. Zola fin horiek ez dira iraun dezaten jartzen, dotoreak izan daitezten baizik. Ibaetan denda duen semeari asko eramaten dizkiote horrelako zola aldatzeko" azalpen luze hau Lander Iglesiasek eman digu.

Gaur egun zapata konpontzaileek ez dute lehen bezain beste josten, aitaren ustez, gutxitxo. "Zola berriak jartzen ondoen josita gelditzen dira, baina josteko makinek asko balio dutenez, 12-13 mila euro, eta gaur egungo zapatariek eskuz lehengoek hainbeste josi ez dutenez..." Iglesiasek dendan behintzat erretiratutako aitak, Landerrek, egiten ditu gehienbat oraindik lan horiek.

Zapatarik ez dute egiten ezta saldu ere. Soilik osagarriak

*Oinetako dotoreek zola finagoa izaten dutenez, gastatzen denean aldatu eta berria jarri beharra izaten da. Zola finak ez dira iraun dezaten, dotoreak izan daitezten baizik*

*Gle-ahaindegi mistoa*  
**Lucia**



**San Pedro jai zoriotsuak opa dizkizuegu !**

*Kale Nagusia 67  
Tel.: 943 371908  
LASARTE-ORIA*





saltzen dituzte, barne-zolak, kordioak, betunak,... Gerriko, poltsa, zorro, eta abar ere konpontzen dituzte. Zeregin nagusiak, takoiak, errema-txeak, tapak, ... konpontzea da. Lan zailak edo arraroak ere egin behar izan dituzte, moto baten aulkia forratu adibidez, "plastikozkoa zuen eta narruzkoa jarri. Lanik ez dagoenean edozeri heltzen diozu..." kontatu digu Oskar Igleasiak.

Erremintak ez dira asko aldatu, baina bai erabiltzen diren produktuak. Kola, betun, barne-zolak, larru, plastiko... asko aldatu eta hobetu dira Zumaburuko zapatariek jakinarazi digutenez.

#### Psikologoak

Berritsu fama daukatela esan, eta "ez, psikologoak gara" erantzun du Leandrok: "Etxe-koandreek edo mutilek, euren bizitza kontatzen digute; jendearen aurrean egoten garen

## *Moto baten aulkiaren estalkia aldatu zuen behin Oskar Igleasiak, "plastikozkoa kendu eta narruzkoa jarri. Lanik ez dagoenean edozeri heltzen diozu..."*

guztion funtzioa da; atseginak izan behar, jenio txarrean bazaude hobeto duzu itxia".

Aitak eta semeak, biek dute eskuetan zaurien markaren bat eta orbana, baina ez dira zapatari lanean egindakok. Oskarri petardo bat lehertu zitzaion eskuan Sanpedro batzuetan eta ez beharraren ondorioak nabari ditu oraindik eskuko bi behatzetan. Aitak ere behatz batean du seinalea, Intxaurren mahai tresneria leuntzen zuen fabrika, ahoa batean laban baten ahoa egiten ziharduela egina: "udan beheko solairuan euliek ere lo hartzen zuten beroarekin eta behatza harrapatu nuen".

Zauri txikiak egiten dituzte, "horiek sarri, baina bestelako arriskurik ez dugu".

Goiz eta arratsaldean egiten du lan Oskarrek, baina 2002tik jada ez du larunbeteetan irekitzen. "Bezeroak ohitu egiten dira, irekitzen baldin baduzu larunbatean ere etorriko dira, eta bestela ez".

#### Extremadura ezagutzen

Oso pozik egon da Lander Lasarte-Orian, oso ondo tratatu dutela dio. Caceresera joaten da urtero hilabeteren bat edo. "Ni orain ari naiz Extremadura ezagutzen, 22 urterekin etorri nintzenean, orduan, ez zen ia autorik, ez ginen

mugitzen, ez geneukan dirurik ere. Behin oporretan hara joaten hasi ginenean pixkanaka hasi ginen hura ezagutzen".

Dena den, pena pixka bat badu Landerrek, orain Extremaduran herriak hutsik daudelako, triste, jenderik gabe, gazteak kanpora joaten dira eta. "Ni 22 urterekin atera nintzenean lau mila biztanle baino gehiago ziren Torrejoncillo herrian, ia bost mila. Denak ginen han, giro oso ona zegoen". Duela 54 urte, bera izan zen hona etorri ziren lehenengotarikotokina. Intxaurren etorri zenean hemengoekin ibiltzen zen ez zuten hangorik ezagutzen.

"Oso ondo hartu ninduten, lagun handiak ditut. Asko balio dute".

Anaiarekin etorri zen, Intxaurren honak ireki zuten dendatxora, baina dena eskuz egiten zuten eta ikusi zuten tresneriarik erosten ez baldin bazuten jai zutela. "Bakoiak bere lana zuen eta dendara egunero joaten zen bakarria ni nintzen. Anaiak Sugens Suchard enpresan lan egiten zuen. Azkenean utzi eta fabrika hasi nintzen lanean, baina gero Iparragirre ezagutu, horretan banekielan esan eta nahi nuenean joateko proposatu zidan".

Gero zabaldu zuen Zumaburuko denda eta 1996an jubilatutako tarteka joaten da semeekin laguntzera. Ibaetan dagoen semeak deitu egiten dio lan honetan berriagoa da eta. Duela hamar bat urte hasi zen. Lagundu eta animoak ematen dizkio Landerrek.



**TXARTEL · TXOKO**  
Jatetxea / Restaurante

Zirkuitu ibilbidea, 1  
Tel.: 943 370192  
Lasarte-Oria



**San Pedro jai zorionsuak opa dizkizuegu !**

*Betiko lekua,  
baina **BERRITUTA***

- Karta
- Taldeentzako menuak
- Eguneroko menua eguerdian gauean

[www.txarteltxoko.com](http://www.txarteltxoko.com)



# Elkarlanaren adibide garbia, LasarteOria aldizkaria

Abenduan 25 urte egin zituen herriko elkarten lanaz argitaratzen den aldizkariak

1985eko abenduan Lasarte aldizkariaren lehengo alea atera zen kalera. Elkarten elkarlana bultzatu eta herria osatzeko asmoz sortu zen ekimenak 25 urte bete zituen lehengo abenduan. Gerora LasarteOria aldizkaria izango zenaren sorrera eta honen lehenengo pausuei buruz gehiago jakiteko ekimenaren sustatzaileetako batekin hitz egin dugu, Sebastian Kerejetarekin.

**L**asarte herriak eraldaketa handia pairatu zuen industria bertan ezarri zenetik. Besteak beste, Brunet, Michelin edota Bianchi lantegiak Lasarten Estatuko eremu desberdinetatik zeto-rren jendea batzea ekarri zuen. "Garai hartan udalaxe probisionala zegoen, Hernaniko eta Urnietako zinegotziek osatua. 5.000 biztanle inguru ziren herrian eta kolpean 15.000 biztanle gehiago etorri ziren," gogoratzen du Sebastian Kerejetak.

Hala baina, elkarte eta eremu desberdinetan biltzen ziren herritarrak. "Batzuk eta besteek zer egin genuen ez genekien. Herritar batzuk egoera konpontzen saiatu behar genuela uste genuen eta lanari ekin genion. Herria maite genuelako, herritarrak batu behar genituen" aipatu du Sebastianek.

Hasiera horretan, Zaharren omenaldiaren antolaketa lanari ekin zitoten. Honetan elkarte desberdinek zer egin bat zutela azaldu du Kerejetak, "Pasaiatik mahai eta aukien atzera-aurreko garraioa eta lekuan prestatu eta biltzen Palomo Linares, Casa de Extremadura, Ongi-etorri .... aritzen ziren, sukaldean Buruntz-Azpi, eta beste hainbat eginkizunetan Lasartearra, Intza, Assis, Guraso Elkarte eta abar. Bestalde herriko 36

emakumez osatutako talde batek zuen ardura zuzena 700 lagun bazkaria zerbitzeko. Horra hor herritarrak elkartzeko modu egokia".

Honela hasi zen herriko mugimendua eta elkarten arteko elkarlana.

Honen ostean, herriko zazpi elkarten arteko mus txapelketa eta elkarte guztien parte hartzearekin San Pedro-tako danborrada bezalako ekimenak ere gauzatu ziren jendeak elkar ezagutzeko.

Gainera, inkesta soziologikoa egiten zuen Danok Kide elkarteari eta droga-menpekotasuna zuten gazteekin aritzen zen Zain-Berri elkarteari lagundu zitoten.

## Lasarte aldizkaria

Gauzak honela, aurreko proiektu guztiak osatu eta herritarrek elkarten berri izan zezaten, aldizkari bat argitaratzeko ideia sortu zen. Danok Kideko Juanjo Mendiluze izan zen sustatzaileetako bat.

"Parte hartzea, elkarlana eta ezagutza sustatu nahi genuen. Herritarrak elkartzea gain, non bizi ziren azaldu nahi genien, herriaren historia jakin zezaten, herrian gertatzen zirenen informazioa eman nahi genuen" azpimarratu du Kerejetak.

1984an ekin zitoten asmo berri honi eta hurrengo urteko abenduan, Lasarte aldizkaria-



LasarteOria aldizkariak urte hauetan izan dituen azaleetako batzuk. Handian, 25 urteurrenean kalera atera zen alea.

ren lehenengo alea atera zen kalera.

"Nola egin ez genekien asko, ezta nondik hasi ere. Lehenengo bilerara Antxon Elizegi etorri zen eta hark bazekien zerbait, esperientzi bazuen arlo horretan. Asmoa azaldu eta han hasi zen. Ekarri hamar folio zuri. Nik egingo dut" adierazi du.

Bertan zeudenei galderak egin eta hemen editoriala, hurrengoan pertsonaiak, gero kirolak, ondoren historia... "maketaren zirimarra eskuz egin zuen momentu batean".

Honela, 1985 eta 1986. urteen artean, lau aldizkari osatu ziren, hiru Lasarte izenarekin eta bat Lasarte-Oria izenarekin. "Izena herria eratu eta gero aldatu zitzaion," azaldu du Sebastianek.

Bigarren urtean hiru LasarteOria aldizkari izan ziren, "baina ikusten genuen hirugarrena osatzeko arazoak gertueta, hau oporren ostean egin behar zen eta bi egitea erabaki zen, herriko festetako eta Eguberrietarako". Eta

“ Herritarren parte hartzea, elkarlana eta ezagutza sustatu nahi genuen aldizkariaren bidez

horrela jarraitu du gaur egunerako arte.

## Ildo nagusia

Aldizkariak herrian zeuden arazoak jorratzen zituela adierazi du. "Gai bat erabakitzen genuen eta hori zen aldizkariaren ardatza normalean. Ikuspuntu desberdinak ematen saiatzen ginen. Agian Pello Artetxek Euskal Herriko gaiak sartzen zituen, baina, orokorrean Lasarte-Oriakoak ziren beti," jakinarazi du.

"Gaia ez errepikatzen saiatzen ginen gainera, baina konpundu gabekoa bazen agian errepikatzen genuen" aipatu du.

Elkarten berriak, Pello Artetxeren iritzia, herriaren historiari buruzko Agirre Sorondoren artikulua, Jesus

Mari Egizabalek idazten zuen "herriko pertsonaiak", aukeraturako gaiaren inguruan herriko alderdi politikoan iritzia eta gai horretaz hainbat iritzirekin mintzatzen ziren lankideen lanak, horren arabera osatzen genuen eta horiek ziren aldizkariaren bizkar-zurra"... aipatzen ditu Sebastianek. "Aldizkaria atera baino hilabete lehenago biltzen ziren artikulua", adierazi du.

## Idazle finkoak


Horietaz gain, kirolak idazteko beti norbait aurkitzen zutela onartu du Kerejetak, "Alvaro Kanok idatzi zuen aldi batean. Zaldien kontuak ere bi edo hiru aletan landu zituen berak. Batasuna elkartearen lagunen laguntza ere izan dugu zerbaki gehienetan,



**Uztailaren Ilean Sagardotegi Kalean arratsaldeko 20:00etan ikusteko eta entzuteko aukera edukiko duzue**

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

**ALBOKA**



**ABESBATZA LASARTE-ORIA**

*Gustuko al duzue abestea?  
Zatoz gure artera!*

**TEL.: 943 365145 / 943 363656 · LASARTE-ORIA**



“ Herriarekin zerikusia zuen gai bat erabakitzen genuen eta hori zen aldizkariaren ardatza



Lasarte-Oriako historia, pertsonaia eta iritziak gain, lehen San Pedro jaietako egitaraua ere argitaratzen zen aldizkarian.

herri inguruko mendi kontuekin, Mikel Etxarrik ere, futbola, kirola eta heziketaren loturaren gaiaz hainbat aldiz idatzi zuen...".

Baina hauetaz gain, gaiak lantzeko idazleak zituztela adierazi digu. "Bageneuzkan bost edo sei bat idazle. Kazetari "fijoak" zirela esan daiteke. Horiei "hau behar diagu" esaten genien eta artikulua idazten zuten. Eta marrazkilaria ezin utzi aipatu gabe, Iñaki Izagirre eta Alberto Petxarroman eta nola ez Iñaki Verdes maketaria" jakinarazi zuen.

"Ez idazle, ez maketari, banatzaile, marrazkilaria, saltzaile eta ez beste inork, ez zuen sekula zentimorik kobratzen", azpimarratu du Sebastianek.

**Irudiak eta inprenta**

Bestalde, lehenengo zenbakietan marrazki asko argitaratzen zituztela azpimarratu du, "bi laguneren argazkirik ez zegoenean, gaia hartu eta marrazkiak egiten zituzten. Esate baterako, Alberto Petxa-

roman eta Iñaki Eizagirre ibili ziren horretan."

Era berean, argazkiak herriko jendeari eskatzen zitzaizkiela ere onartu du eta Kerejetak egiten zuen lan hori. "Zortea nuen ez zizkidaten arazorik jartzen" adierazi du.

Hau guztiaz gain, Donostiako Egia auzoan, Kristinaneatik gora joanda bodega batean inprimatzen zirela azaldu du, "xelebrea izaten zen, hiru paper bobina estu izaten ziren inprentan idatzita. Eta Iñaki Verdesek kolarekin orrietan eransten zituen artikulua. Gero, ondoren, berriro inprentara eramanda haiek fotokopiatzen zituzten. Gainera, azalpenak eskatzen zituzten artikuluei buruz, izan ere, makina, gutxi zeukatenez eskuz idatzita etortzen ziren artikulua asko eta ulertzen zailak. Lan izugarria zen".

**Aldizkariaren banaketa**

Inprimatu ostean, herrira ekarri eta elkarteek bakoitzak bere eremuan saldu eta banatzen zuten aldizkaria, "antolaketa lana handia genuen".

Hala ere, Sebastianek gogoratzen duenez, "aldizkaria etxeetan saldu baino aste bete lehenago auzo desberdinetan kartel handiak jartzen genituen, Alejandro Romok egindakoak.

Honela, harrera ona izan zuen LasarteOriak, "etxe etxe joaten ginen aldizkaria saltzen eta jendeak bazekien zer zen; ehun pezetan saltzen genituen".

Aurrerago, aldizkaria doan banatzeko ideia izan zuten eta "etxe bakoitzean, 5.000 postontzietan sartu genuen, hauek inskripzio orri bat zegoen.

Aldizkaria jaso nahi zuenak betetzeko eta orain orduan eskatu zutenak eta ondoren nahi izan duenak jasotzen dute," azaldu du.

**Aldaketak**

Era berean, aldizkaria osatu eta publizitatea egiten zutenak urtero biltzen ziren babarrun jana egiteko. "Aitzakia zen elkarteetako jendeak harrerama izan eta elkar ezagutzeko. Bazkaria, elkarte ezberdinetan egiten zen, naiz beti Buruntz-Azpin prestatu. Giro ezin hobea egoten zen," adierazi du Kerejetak.

Elkarteen zuzendaritzak aldatzen ziren eta urtero berriei gauzak azaldu behar zitzaizkien. Lehendabizi elkarteak aldizkaria atera aurretik bildu eta gaiak elkarrekin aukeratu eta aztertzen zituzten, baina pixkanaka interesa hozten joan da eta gutxi batzuek erabakiak hartzera behartu da.

Egun Kexus Marcos dago zuzendari lanetan, eta teknologia aldatu diren arren, aldizkariak bere estruktura mantendu du.

Ea urte askotan honela jarraitzen duen! •

**Nagusia 36, behea 20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 37 04 46**

**Jai zoriontsuak opa dizkizuegu !**

**Nagusia 50, behea Lasarte-Oria  
Tel.: 943 36 36 11**

**Egin zure eskaria eta guk prestatuko dugu!**

**HARATEGIA**

**BALERDI**

**URDAITEGIA**

**Geltoki Kalea 15 behea Lasarte-Oria  
Tel.: 943 376585**



# ‘Poz handia eman digu saria irabazteak’

■ Ostegunean, ekainaren 30 gauean, Okendo plazan jasoko du Lasarte-Oria saria Flashback taldeak ■ Reincidentes taldearen aurretik joko du San Pedro jaietako kontzertu nagusian

Lasarte-Oriako IV. Maketa lehiaketako irabazlea Gironako *Comet Blue* taldea izan da eta Lasarte-Oriako saria, aldiz, *Flashback* taldeak eskuratu du. Saria San Pedro jaietan emango zaie, ekainaren 30ean, 23:30etatik eskainiko duten kontzertuan. Gainera, Gironako taldea ezin denez etorri eta bertan egon, *Flashback* izango da talde abiatzailea *Reincidentes*-en kontzertuan.

NEREA EIZAGIRRE

**H**errian musika talde ugari daude gaur egun eta guztiek bere lekua lortu nahi dute musika munduan. Hau lortzeko moduetako bat, maketa lehiaketatan parte hartzea da. Lasarte-Orain, 4. urtea da maketa lehiaketa egiten dena eta aurtun Flashback taldea izan da Lasarte-Oriako saria eskuratu duena. Eneko eta Aitor taldeko kideekin bildu gara *Flashback* taldeari buruz gehiago jakiteko.

#### Noiz sortu zen *Flashback*?

Orain dela bi urte sortu genuen. Lagun talde bat biltzen ginen. Nik (Eneko) gitarra jotzen nuen lehenagotik eta David ezagutu nuen, beste gitarra. Berak berez, pianoa jotzen ikasi du, baina gitarrekin ere saltseatzen zuen pixka bat. Egun batean taldea sortzea otu zitzaigun.

Lehenengo batzuk hasi ginen eta pianoa jo behar

zuen gitarra jotzen hasi zen eta azkenean orain gaudenak bukatu genuen

Hasieran denbora pasa bezala hasi ginen, eta ikusi digu pixkanaka aurrera doala. Izan ere, ezin duzu helburu handirik izan, bestela ez duzu ezer lortuko.

#### Zenbat talde kide zarete?

Bost gara: bateria, baxua, bi gitarra eta abeslaria.

Batzuetan gitarretako batek pianoa jotzen du, baina behar denean bakarrik, ez da instrumentu fijoia.

#### Eta herri desberdinetakoak al zarete?

Bai, hiru Lasartekoak gara, Guillermo gitarrajolea, David bateria eta ni (Aitor) baxuan; Eneko Andoaingoa da eta Asier abeslaria, aldiz, Donostiakoa.

#### Eta non elkartzeko zarete entseatzeko?

Lasarten biltzen gara. Parape-toan entseatzeko dugu.



Flashback taldeko kideak hainbat kontzertu eskaini dituzte gure herrian.

ARGAZKIAK: FLASHBACK

“ Ez da punk, ez da rock and roll...Ez dakigu nola definitu daitekeen egiten dugun musika.

#### Zein estilo jotzen duzue?

Betiko galdera da hori. Guk esaten dugu rock-a egiten dugula, baina zehazki, ez dakigu nola definitu egiten dugun musika.

Ez da punk-a, ez da rock and roll-a... nahasketa bat da.

#### Beraz, zein talderen eragina duzue?

Taldean bakoitzak bere gustuak ditu.

Nik (Eneko) gehiena 80 hamarkadako heavy-a entzuten dut. Aitorrek gaur egungo rock urbanoa, *Extremoduro*,

*Marea* edo horrelakoak. Abeslariak rock modernoa, *Muse* eta horrelako taldeak.

Ikusi dezakezunez, denetarik dago taldean.

#### Hasieran bertsioak egiten hasi zineten?

Bai, horrela da. Hasieran beti talde batek gustuko dituen taldeen abestien bertsioak egiten ditu.

Gainera, proba moduan hasi ginen honela, taldeko kideen erlazioa nolako zen ikusteko eta ondo joan zen.

## JOSE AIZPURUA UNANUE S.L. eraikuntzak



- Igeltseritza orokorrean
- Fatxaden estaldurak
- Estalkien berriztatzeak
- Gremioen koordinazioa
- Barne erreformak

Ondo pasa  
San Pedro jaietan !



Obaba Kalea 29 • Asteasu • Tel./Faxa: 943 696 852 • Mobila: 620 800186





“ Animatu gure kontzertua entzutera. Musika desberdina egiten baitugu, ez da betikoa.

Gero pausu logikoena abesti propioak egiten hasia zen.

**Eta nola egiten dituzue abestiak?**

Denetik dago batzuetan batek egiten du guztia; besteetan entseguetan egiten da, bakoitzak bere iritzia emanaz.

Baina lehenengo musika egiten dugu eta gero hitzak.

Gainera, abesti propioak ingelesez egiten ditugu.

**Zergatik ingelesez?**

Nik (Eneko) entzuten dudana musika gehiena ingelesez da eta hitzetan esaten duguna, euskaraz edo gazteleraz esan beharko banu, ni barregarri sentituko nintzateke. Ni erosoago sentitzen naiz ingelesez kantatzen.

Gainera, errimak egiteko errazagoa da, hitzak motzagoak dira eta erritmikoagoak.

**Kontzerturik eskaini al duzue inguruan?**

Gehienak hemen Lasarten eman ditugu, Donostian ere hainbat lekutan jo dugu. Urrutiarena Haron, Errioxan, izan zen, bertako lehiaketa batera aurkeztu ginelako.

Guztira ez dakigu, hama-bost edo hogeitaz izango dira. Aurten izan dira gehienak. Maketarik gabe ez geneukan sarritan jotzerik eta horregatik aurten kontzertu gehiago egin ditugu.

**Eta nolako harrera izan du taldeak?**

Denbora gutxi daramagu eta momentuz ez dugu jende asko mugitzen, beti dauzkagu betiko lagunak gu ikustera datozenak. Baina kanpoko jendeak, kasualitatez entzuten gaituenak iritzi ona eman digu taldeaz.

**laz San Pedro jaietan herriko taldeen kontzertua izan zen eta zuek bertan zineten. Zer moduzko esperientzia izan zen?**

Jende gutxi zegoen igandea zelako, baina ondo.

Pozik gaude egindako kontzertuarekin.

**Maketa aipatu duzue? Noiz grabatu zenuten?**

Abenduan hasi ginen eta hiruzpalau hilabete egin genituen grabatzen. Orduak, ez dakigu, ehun bat inguru edo.

Baina ez ginen askotan elkartzten. Batzuk azterketekin, besteak ez dakit zer dutela...

Martxoan edo apirillean aterata zen maketa. Horrekin lehiaketetara aurkeztu eta itxura hobetuko du taldeak.

lazko maketa lehiaketara, esate baterako, mugikorrarekin grabatutako artxibo bat bidali genuen.

**Eta laguntza izan zenuten grabatzeko?**

Nire gela-kide batek estudioa dauka etxean. Ikastaro bat egin zuen eta amateur bezala aritzen da.

Nik baldintzak galdetu nizkion eta berak bertara joan eta probatzeko esan zigun. Adunara joan ginen maketa grabatzera.

**Eta maketa horrekin, Lasarte-Oria Saria eskuratu duzue Lasarte-Oria IV. Maketa lehiaketan?**

Oso pozik gaude lortu dugun sariarekin.

Gainera, San Pedro jaietan Reincidentesen kontzertuan talde abiatzaile izango zarete. Jendeak entzuteko aukera bat da. Edozein kontzertu da aukera bat, baina horrelako talde batekin jotzea... jende pila batek ikusiko zaitu, edo behintzat normalean ikusten ez zaituen jendeak.

**Lasarte-Oriakoaz gain, beste lehiaketetara aurkeztu zarete?**

Pila bat izan dira. Azkenekoa, lehen Donostiako Pop-rock lehiaketa zena, orain tokiko musika lehiaketa dena. Lehendabiziko fasea pasa genuen eta bigarrena ez.

**Horrek esperientzia ematen du, ezta?**

Bai, horrela da. Kasu horretan lehenengo fasean maketa izan zuten kontuan eta bigarrenean, Victoria Eugenia antzokiko Club aretoan kontzertua eskaini genuen. Polita izan zen, lekua ere ona zen.

**Zer aurrikusten duzue?**

Kontzertu gehiago jo nahi ditugu. Maketa jendearek aurkeztu eta edonon jotzen saiatu, kanpora joan. Orain arte, dirua dela eta, ez gara kanpora joan jotzera. Baina sariarekin dirua irabazi dugu.

Honetaz gain, entseguetako soinua hobetu nahi dugu. Horretarako materiala eta tresna berriak erosiko ditugu.

Abesti berriak egin eta grabatzea ere ongi legoke.

**Zer esango zeniekete jendeari Jendea animatu nahi duzue gure kontzertua entzutera.**

Musika desberdina egiten baitugu, ez da betikoa.

Gainera, Okendon doan joko dugu eta gero Reincidentesen kontzertua dago. Ez zaie asko kostako ordu erdi lehenago bertan egotea. •



# i. GRRUZOLA AROZTEGIA

**Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!**

- Era guztietako arotz-lanak
- Armairu barrenduak
- Etxe barruko konponketak
- Parket flotantea

Oria etorbidea 4, behea (Errekatxo jatetxearen ondoan)  
Tel.: 943 371200 / 610 413131  
Lasarte-Oria

# YOLANDA TABERNA

Janariak ematen ditugu: astebukaerako menua, bokatak, sandwichak, plater konbinatuak,

**Oso ondo pasa festetan!**

Pintore I • Lasarte-Oria  
Tel.: 943 110957

# FISIOTERAPIA ZENTRO Ibaiondo

**Oso ondo pasa herriko jaietan!**

Fisioterapia Masajeak  
Errehabilitazioa Osteopatia

Ola Kalea, 12 - behea, ezk - LASARTE-ORIA  
Tel. | Faxes: 943 370 306 - fisiolbaiondo@gmail.com



laz San Pedro jaietan gazte taldeen kontzertuan egon ziren, Aurten, Reincidentes taldearen aurretik jotzea...



# Euskaraz ongi pasatzeko astea

Zumaburu-Sasoeta ikastetxeko haur eta gaztetxoek ederki gozatu dute Euskal Astea

Ikasturte amaiera iritsi da, San Joan Sua atzo izan zen eta ikasleak dagoeneko oporretan daude.

Hala baina, egun hauetan ikastola gehienetan azterketen emaitzen zain egon dira gazteak, Zumaburu-Sasoeta ikastetxeke gazte eta haurrek, berriz, Euskal Astea ospatu dute.

Euskararen erabilera bultzatzeko hainbat ekintza burutu dituzte, lehengo ostiraletik, ekainaren 17tik ostegunera.

Esazu irratiko lagunek irratia berezia egin zuten ostiralean.

Larunbatean haur, zein gurasoek primeran gozatu zuten jaialdian eta maila desberdinek izan dituzten irteeratan ere oso pozik ibili dira, hala nola, tren txikiko bidea egin zuten, Zubietara joan

edo Santa Barbarara igo ziren.

## Handietaz ikasten

Baina, ez dira horiek bakarrik izan aste honetan egin dituzten ekimenak.

Besteak beste, asteartean, ikastetxeke handienek, LH5eko gaztetxoek bertso saioa eskaini zieten LH3 eta LH4 mailako ikasleei.

Eta jarraian, HH5 eta LH1 mailako haurrek talde desberdinetan ikasle zaharrenek kontaktutako ipuinak entzun zituzten, Bermengo musikariak edo Jostuntxo ausarta, esate baterako.

Honetaz gain, asteazkenean, ikastetxeke txikiek jolasak izan zituzten.

Gauzak honela, 2010-2011 ikasturte amaitu da eta ikastetxe, zein ikastoletako gelak irailera arte hutsik egongo dira. •



Sasoeta-Zumaburu ikastetxeke gazteek talde desberdinak egin eta HH5 eta LH1 mailako ikasleei ipuinak kontatu zizkieten.



Aurretik, bertso saio umoretsua eskaini zieten LH3 eta LH4 mailakoei.

Arg.: Sasoeta-Zumaburu ikastetxea



# EPPEL



Oso ondo igaro San Pedro jaietan !

**TXERRI-BELARRI GUTIZIAZKOAK  
ETA OLAGARROA**

**AUKERA IZUGARRIA**

- pintxoetan
- razioetan
- ogitartekoetan
- plater konbinatueta

Goikale 1 • Tel.: 943 362701 • LASARTE-ORIA

# COPILASARTE



Oso ondo pasa !

- ESTANPAZIOAK
- FAX-ZERBITZUA
- FOTOKOPIAK

Kale Nagusia 34 • Tel.: 943 366930  
Faxa: 943 366931 • Lasarte-Oria

# M. Berasategi

**Kafeak**

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu !



Beti dago aukera kafe on bat hartzeko

**INFUSIOAK**

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erh)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE ZAPOREAREKIN e.a....

**TEINA GABEAK**

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a...

**KAFE ARABIKOAK**

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA

Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316  
LASARTE-ORIA



# ISU

Jai alaiak opa dizkizuegu !

- POLIURETANOAK
- PVC
- ALUMINIOA
- ZUBI TERMIKOAREN HAUSDURA
- ATE-LEIHOAK
- PERTSIANAK
- TOLDOAK
- DEKORAZIOA



Kale Nagusia 46 • Tel.: 943 366495 • Faxa: 943 365222

Oso ondo pasa San Pedro jaietan !

# GOXOKIS GOXUA



Jai alaiak opa dizkizuegu !

# DANA ONA JATETXEA

- EUSKAL HERRIKO SUKALDARITZA
- JANGELA EGOKI-EGOKIAK, EZKONTZAK, JAUNARTZEAK ETA BESTE EDOZER OSPATZEKO
- ETXeko ESPEZIALITATEA: PARRILLAN ERRETAKO ARRINA ETA HARAGIA.

restaurante@danaona.com  
Zubieta (Hipodromoaren ondoan)  
Tel.: 943 365347/943 361731 • Faxa: 943 366020



# SALAZARPROFESIONAL

ILEA-APAINTEZKO ETA EDERGINTZAKO PRODUKTUAK

San Pedro jai zoriontsuak opa dizkizuegu !

Geltoki Kalea 15  
Tel.: 943 360211  
www.salazarpro.net




# MAIDER

Taberna-Jatetxea

Ondo pasa San Pedro jaietan !

- Asteburuko menu bereziak
- Eguneko menuak
- Gaueko menuak
- Kartako zerbitzua
- Pintxoak
- Bokatak
- Razioak
- Plater konbinatuak

Hipodromo etorbidea 7 • Tel.: 943 362700 • LASARTE-ORIA






Sua piztu aurretik, Erketzeko dantzariak Soka dantza dantzatu zuten.



Sua piztu eta gero, herritar ugari animatu ziren kalejira dantzatzera suaren inguruan.

## San Joan Sua Okendon

■ Okendo plaza berritua jendez bete zen bart San Joan sua ikusteko ■ Udalbatzar berriak egin zuen Udaletxearen eta Okendo plaza berriaren arteko bidea


**S**an Joan eguna dugu gaur. Bart Okendo plaza berria sua piztu zen. Baina sua piztu baino lehen, Erketz EDT-ko lagunek San Joan zortzikoa dantzatu zuten udaletxe parean. Eta Udalbatza berriarekin batera, Okendo plazarako bidea egin zuten herriko dan-

tzariak. Plaza bete zuten lasarteoriatarrek Pablo Barrio alkateak sua noiz piztuko zain zeuden bitartean, dantzariak agurra eta soka-dantza dantzatu zuten. Era berean, San Joan sua erre zen bitartean, kalejira, fandangoa eta arin-arina dantzatu ziren honen inguruan. •

# LUIS CAR

## autobusak

**Jai zoriontsuak opa dizkizuegu !**



- Espainiako eta nazioarteko garrario-zerbitzuak.
- Enpresentzako, ikastetxeentzako...zerbitzuak.
- 15 plazako microbusak.
- 55 plazako autocarrak.
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autokarrak.

**Uzturre plaza 1 Tel./faxa:943366316 Mobila: 629461897 LASARTE-ORIA**



# San Pedro jaiak ate joka ditugu

Jaiak hasi baino lehen, astean zehar, hainbat ekintza burutu dituzte herriko elkarteek, erakustaldiak, kontzertuak, eta haurrentzako Ureta festa ere egon da



Udal Dantza eskolako hiru dantza taldeek emanaldi polita eskaini zituzten asteartean.



Udal Musika eskolako haur eta gaztetxoek ederki jo dituzte bere instrumentuak eskaini dituzten bi kontzertuetan.



Emakumeen Zentro Zibikoa sabel dantza, batuka eta aerobic erakustaldia egin zuten kiroldegian.



<b>DEKORAZIOA</b> Suediako parket flotantea	<b>MARKA HORIEN BANATZAILE OFIZIALA</b> Erakusketa Kale Nagusia 4 • LASARTE-ORIA Tel.: 943 362157 Faxa: 943 366157	<b>Oso ondo pasa festetan!</b> Bitegia Errekalde pol. 33 • DONOSTIA (Lehengo Bianchi) Tel.: 943 364403
--	--	---

## Incomán

**Ondo igaro herriko jaietan!**

- **Elektrizitatea aurrezteko ikerlanak.**
- **MIC transpalak.**
- **MIC metagarriak.**

**Antxota kalea 2 • LASARTE-ORIA**  
 Tel.: 943 373198 / 943 373153  
 Faxa: 943 365935

## ARREGUI

**Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!**

- **Material elektrikoak**
- **Argiak**
- **Etxetresna elektrikoak**
- **TB/HI-FI**
- **Instalazio elektrikoak**

[www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)

**Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA**  
 Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521

## SUGATE SUGATE

**Oso ondo pasa San Predotan!**

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma-armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak

**Pintore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471**  
 Lasarte-Oria  
[www.sugate.net](http://www.sugate.net)



Haurrek ederki gozatu zuten atzo goizean igerilekuan egin zen Ureta festan. Puzgarriak, txirrista eta ur gaineko alfonbra izan zituzten handiek; txikiak kortxozko gauzekin jolasteko gunea izan zuten.



Biyak Bat elkartean mahai joko eta mugimendi jokoen txapelketak egin dira, adibidez, dominoa.

Biyak bat elkarteko kideek gimnastika eta aerobikari esker sasoin daudela erakutsi zuten.

**Maite Erkizia**  
**ILE-APAINDEGIA ESTETIKA**  
**OSO ONDO PASA FETETAN!**  
 Blas de Lezo 5, behea  
 Tel.: 943 370254  
**LASARTE-ORIA**

**Otegi**  
 SAGARDOTEGIA  
 SOLLAEÑA BASERRIA  
 • Larunbata eta jai eguerditan irekita  
 • Asteartetik larunbatera gauero irekita  
**Zabaleta auzoa • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 365029**

**Ondo pasa festetan!**  
**ZUMABURU**  
**LIBURUDENDA**  
 Nagusia Kalea 46 behea  
 20160 Lasarte Oria  
 Tel.: 943 371386

# SANCHO TABERNA

**San Pedro jai zoriontsuak opa dizkizuegu !**

**Kaxuela,  
 pintxo eta  
 morunoetan  
 espezializatua**



**HITZARTUTAKO  
 eta  
 TALDEENTZAKO  
 MENUAK**

**Ogitartekoak  
 Pintxoak  
 Plater konbinatuak  
 Eguneko menua**



**Oriamendi enparantza 1 behea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 372075**





**ETXARRI DIGITAL**

943361484 Nagusia 17 LASARTE-ORIA

KIOSKO DIGITALA



**SAN PEDRO JAIAK  
2011**



ERREBELATU DIGITALEKO MAKINA BERRIA

Errebelatu DIGITALA ORDU ERDIAN  
KARRETEEN errebelatua  
EZKONTZETAKO erreportajeak  
ESTUDIOKO erreportajeak  
makina DIGITALAK  
30X90 neurrirainoko ANPLIAZIO DIGITALAK  
Markoak jartzeko tailerra  
Opari pertsonalatuak



**IES Hernani BHI**  
A. Iturriaga - K. Labaka



**HEZIKETA ZIKLOAK**

**ERDI MAILA**

- Mekanizazioa
- Instalazio elektriko eta automatikoak
- Telekomunikazio instalazioak **berria**

**GOI MAILA**

- Fabrikazio mekanikako diseinua
- Sistema Elektroteknikoak eta automatizatuak
- Gizarte eta kultur animazioa **berria**

**SARBIDE PROBA**

- Goi mailako heziketa zikloetan sartzeko proba prestatzeko ikastaroa

**HASIERAKO LANBIDE PRESTAKUNTZAKO PROGRAMAK**

**PCPI**

- Mekanizazioko langilea **berria**
- Etxeko jardueretarako eta mendeko pertsonentzako oinarrizko zaintzetako laguntzailea

**ESKAINZTA PARTZIALA**

- Instalazioa elektriko eta automatikoak: Hernani, Easo eta Usurbilen arteko plana



**MATRIKULA EPEA UZTAILAREN 4tik 8ra**

[institutua@hernanibhi.com](mailto:institutua@hernanibhi.com)  
[www.hernanibhi.com](http://www.hernanibhi.com)



A. ITURRIAGA • Santa Barbara auzoa z/g Tel.: 943 551188 • Faxe: 943 552271 • 20120 HERNANI  
K. LABAKA • Karmelo Labaka 7 Tel.: 943 551958 • Faxe: 943 330550 • 20120 HERNANI





**San Pedro jai zoriontsuak  
opa dizkizuegu !**



**Eskaintza berriak udara honetan  
Galdetu gure kliniketan !**

**Aldaz Hartz Klinikak tratamendu aurreratuenetan  
aplikatutako punta puntako teknologia eskaintzen dizu**

- inplanteak eta hartz fijoak egun batean**
- ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz  
bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe**
- “invisalign” ortodontzi ikusezina**
- pazientearen irribarrea sesio batean aldatzen  
duten karilla estetikoak**
- interesik gabeko finantziazioa 12 hilabete arte**

RPS 25/06

Deitu gure zerbitzua ezagutzeko

**943 366 377**

Ola kalea, 10

San Bartolome, 22

Lasarte-Oria 20160

Elgoibar 20870

[www.dentalaldaz.com](http://www.dentalaldaz.com)

